

# IRAKAS PROFESIONALITASUNA GAUR

AUTONOMI ELKARTE ETA ESTATUKO ESKOLA KONTSEILUEN  
VI. IHARDUNALDIAK

Bilbo, 1995eko Apirilaren 25a

## AURKIBIDEA

### A.- ESKOLA ERAKUNDEARI EGINDAKO ESKARIAK

- 1.- Eskari batzuek aldaketak dakarzkite eskola-ihardueraren orientabidean.
- 2.- Eskolari egiten zaizkion eskariak zalantzagarriak dira eta baita kontraesankorrak ere.
- 3.- Gizarteak eskola eraginkorrago bat eskatzen du.
- 4.- Kalitatearen herronka.
- 5.- Eskolak eskari berrien aurrean duen erantzunkizuna.

### B.- IRAKAS PROFESIONALITASUNAREN DEFINIZIOA

- 1.- Irakas-ihardueraren eremua.
  - 1.1. Ikasketa-planaren hautatzailea eta moldatzailea.
  - 1.2. Irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuaren gidaria eta bitartekaria.
  - 1.3. Ebaluaketa-egitekoa.
- 2.- Bere irakas-iharduera burutzeko daukan testuingurua
  - 2.1. Ikastetxea.
  - 2.2. Talde-lana.
  - 2.3. Gizarte-testuingurua.
- 3.- Lanbide-garapenaren prozesua.
  - 3.1. Aktiboko irakaslegoaren prestakuntza.
  - 3.2. Irakas-praktikaren ebaluaketa.
  - 3.3. Berriztapen-gaitasuna.
  - 3.4. Lanbide-sustapenerako bideak.
- 4.- Lanbide-kulturaren aldaketa.

### C.- ALDAKETEN LEHENTASUNAK ETA ESTRATEGIAK ETA BEHARREZKO IHARDUERA BATZUK

- 1.- Gaitasun/Prestakuntza arloa.
- 2.- Lan-baldintzen markoan.
- 3.- Hezkuntza-kalitatearen kontrol demokratikoa.

## AURKEZPENA

Ondoren aurkezten dugun dokumentuan, Autonomi Elkarteetako eta Estatuko Eskola Kontseiluek "profesionaltasuna hezkuntzaren eremuan" gogoeta-gaitzat hartuta maiatzaren lehen egunetan Sitgesen egin zituzten VI. Ihardunaldietan Euskadiko Eskola Kontseiluak egin zuen ekarpena biltzen da.

Gogoeta honen puntu nagusiak, alegia, irakas-lanbidearen eta beste lanbideen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak, eta hasierako prestakuntzak, iraunkorrek, deontologia-kodeak edo eskola-elkarteak lanbidea egikaritzeko era jakin batean duen eskuharmenak daukaten eragin-motaren analisia hain zuzen, planteatzen zituen gidoi bateratu bat egon zen arren, Kontseilu honek nahiago izan zuen bere gogoeta beste ikuspuntu batetik ordenatzea, ikuspuntu ez hain deborazkanpokotik eta gure hezkuntz-sistemaren gaurko unean integratuago eta testuingurutuago dagoen batetik alegia.

Eskolaren egitekoa, eta beraz bertan lan egiten duten profesionariena, gizarteak une eta testuinguru bakoitzean egiten dizkion eskariekin baldintzaturik dagoenez, garrantzitsua iruditu zitzaigun lehenengo eta behin eskari hauek aztertzea, jakiteko zeintzuk diren horiei erantzuteak profesionarien ihardueran suposatzen duten aldaketa kualitatiboak eta arlo eta eginkizun hauen ugaltze geldiezinaren aurrean beste buru batzuei eskatzeko erantzunkidetasun gehiago eta eskolako erantzukizun berezien mugaketa hobe.

Gizarte-eskarietara jarrera hartzaile eta era berean kritiko batekin hurreratzen da, zeren, irakaskuntza lanbide publiko bat eta beraz, gizartearen beharrianekin zerikusia duena denez, horrek ez baitu esan nahi beharrian horiek, ez bakarrik, ez zilegizko bakarrik direnik, eta gainera ongi dakigulako talde bakoitzak dituen interesak elkarlotzeak gizarte-erantzukizun hau asko ere konplexuagoa bihurtzen dutela.

Bigarrenik, irakasleen lanbide-konpetentziaren eremua oinarrizko hiru zutaberen inguruan mugatzen saiatu gara: euren iharduera itxuratzen duten eginkizun esanguratsuenak, euren ardurapean dauden eta ikasleentzako baliagarriak diren curriculum-proposamenak landu, burutu eta ebaluatzea ardaztat dutela; irakas iharduera burutzerakoan ematen diren testuinguruak, hau da, elkarrekin banaturiko eta, beraz, bere baitan murgildurik duen multzoak bere aldetik baldintzatu eta potentziatzen duen talde-ekintza bezala ulertzea behartzen duten testuinguruak alegia; eta, azkenez, lanbide-garapenaren hitzmugetan garatutako lana aintzatetsi eta promozio-ahalbideak barnean hartzea ahalbideratzen duen lanbidearen aurrerakuntza-ikuspegi ebolutiboaren beharriana.

Dokumentuaren azkenengo atalak argi utzi nahi du irakasleen lanbide-kulturarekin zerikusi duten aldaketak astiro ematen direla eta profesionaltasun berri baten garapenak iharduera koherente eta sostengatuak eskatzen dituela; baina zuzenduta daudenak ez prestakuntzaren bidez lortuko diren gaitasunen arlora bakarrik baizik antolamendu-markoak eta lan-baldintzak aldatzera ere eta horrek, ikastetxe eta profesionarien hezkuntza-kalitatearen ebaluaketa-sistemei begira hobetu eta hitzarmenak egin beharra eskatzen du.

Euskadiko Eskola Kontseiluak gogoeta honen bidez bat egin nahi du irakasleagoa eta bere prestakuntza, bere egitekoak, gaitasunak eta jarrerrak eta bere hautapen eta ebaluaketarako prozedurak gaitzat hartuta burutzen ari den gizarte-eztabaidaren interes eta garrantzia hazkorrarekin eta irakasleak oro har, eta eurek ordezkatu eta biltzen dituzten erakundeak eta elkarteak eta klaustroak animatu nahi ditu analisia eta gogoeta egin ditzaten lanbide-taldetik bertatik hasita, gure irakasleen lanbide-garapena eta lanbide honen gizarte-ulerkuntza hobeto bultzatzeko xedeaz.

M<sup>a</sup>ANGELES ECHEVARRIA MARTINEZ  
EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

## **SARRERA**

Eskolaren egitekoa eta, ondorioz, irakas-profesionariaren eredia, une historiko bakoitzean eta tokiko testuinguru bakoitzean gizarteak zuzentzen dizkion eskariak zeharo baldintzaturik daude. Hala ere honek ez du esan gura hezkuntza-sistemaren zeregina gizarte-eskariari automatikoki erantzutera mugatu behar denik. Hezkuntza-sistema erakundeturik dago eta horrek esan nahi du beregana iristen diren gizarte-eskariak iragazirik daudela lan, ekonomia eta ekoizpen-munduan erroturik dauden eta bakoitzak bere interes ezberdinak dituzten zenbait gizarte-erakunderen bidez eta planteamendu ideologiko zehatzak dituzten erakunde politikoaren bidez. Hezkuntza-fenomenoari buruz normalean eduki ohi den baino ikuspegi osoago batek eta perspektiba historiko handiago batek ikusten laguntzen dute bizitasun, sormen eta kritika-ahalmen handia duten hezkuntza-erakundetako gizarteek nola lortu duten etorkizunerako guztiz positiboak izan daitezkeen aldaketa eta eraldakuntza garrantzitsuak beren baitan bultzatzea. Eskolaren eta irakaslearen egitekoa analizatzen denean eztabaidan jarri behar dira, orobat, egiteko horrek erantzuten dien interesak eta aztertu horietako zer mantendu behar den eta zer aldatu. Bestalde, eskolari eta bere profesionariari gero eta kalitate eta eraginkortasun gehiago eskatze horrek, bere zereginaren garrantziak eta bera garatzeko dagoen giroak daukaten konplexutan handiagoak eskatzen duen gizarte-aintzatespena eduki behar du eta planteatutako eskakizun-mailekin koherentzia dauden administrazio-ihardueretan ere gauzatu behar da.

Perspektiba honetatik begiratuta irakaslearen profesionaltasunari buruzko gogoetak hurrengo alderdietan izango du bere ardatza:

- a) Ezagutu eta aztertzea zeintzuk diren eskola-erakundeari gaurko gure gizarte-testuinguruan egiten zaizkion eskariak, gehiago sakonduta irakaskuntza-ihardueran aldaketa kuantitatiboa suposatzen dutenetan eta eskolaren eta gainerako agenteen erantzunkizuna mugatzen saiatuta.
- b) Aurrera egitea planteamendu eta eskakizun berriak dituen testuinguru batean eskolak duen egitekoarekin koherentzia dagoen lanbide-kultura berriaren definizioan.
- c) Adieraztea zeintzuk diren desiragarria hurreratzeko behar diren aldaketek eta beste iharduera batzuek dituzten lehentasunak eta estrategiak.

## **A.- ESKOLA ERAKUNDEARI EGINDAKO ESKARIAK**

Salatu ohi da eskola iragazkaitza dela aldaketa eta gizarte-eboluzioaren aurrean; baina, era berean, hezkuntza-sistemara bidaltzen da gizarte, ekonomia eta kultura-eraldaketa bizkorrek sortzen duten tiradura-multzoa, bere erantzunkizunen artean har ditzan eta erantzunak eman diezazkion.

Eskolari egiten zaizkion gizarte-eskakizunak gehitu eta aniztu egin dira eta ondorioz badirudi eskola-erakundeari eskatzen zaizkion egiteko eta zeregin berrien katalogo bat egitea baino garrantzitsuagoa dela aztertzea, alde batetik, eskaera horiek zein neurritan

suposatzen duten eskolaren egitekoan aldaketa kualitatibo garrantzitsu bat eta, ondorioz, aldaketa bat irakas-egitekoan eta, beste alde batetik, eztabaidan jartzea ea eskolak izan ahal duenentz eta izan behar duenentz eskakizun guzti hauei erantzuna eman behar dien erantzule bakarra.

## **1.- ESKARI BATZUEK ALDAKETAK DAKARZKITE ESKOLA-IHARDUERAREN ORIENTABIDEAN.**

Gizarte-elkarbizitzaren oinarri diren balioak ez dira gaur egun uniformeak eta bidezkotzat eta beharrezkotzat jotzen da pluraltasuna. Eskolak funtsezko paper bat jokatu du beti inork ere zalantzan jartzen ez zituen balio jakin batzuk sarrarazten. Egiteko hau garatzen zuen eta garatzen jarraitzen du izkutuko ikasketa-plana deituaren parte zen eta den sistema-egituraren beraren eta erakunde-harremenen bidez. Irakasleek hain berenganaturik eta berenbaitaturik zeukaten egiteko hau non lanbide-eginbidean jokatzeko ari ziren paper honekin asko eta asko kontziente ere ez ziren, eurekin zerikusirik ez zuen zeregin bat zela uste izateraino. Gero eta pluralago eta irekiago den gizarte batean ez daude balio bakar batzuk, naiz eta balio batzuek hegemonia argia eduki. Testuinguru honetan eskolari eta irakasleei planteatzen zaie beren zereginak ikuspegi honetatik aztertu behar dituztela eta gure garaiko eskola-sistemakoak direla esan ohi diren xedeekin koherente den jokabide bat planteatu behar dutela eta honek zalantzan jartzen du bere lanbide-zereginaren parte inportante bat, orain arte bete duten moduan ulertuta bederen. Ezagupenaren garapenean ardatza zuen eskola batetik ikaslearen etika-garapenari arreta jartzen dion eskola batera iragan behar da, iharduera sistematiko eta aurrerakor baten bidez garatu behar den berariazko ikasketa-planaren parte den balioetako **hezkuntza bultzatzen duen eskolara** hain zuzen.

Gizarteak bizi duen balio-krisiak, gizarte eta familia-antolamenduan dauden aldaketek, bizi-molde berriek, gero eta ikasle neska/mutil kopuru handiago batek bizi duen desegituraketa eta, gehiago, bazterketa-egoerek, eskola-integrazioa, ikasketako esfortzua eta, oro har, eskola-iharduera gero eta zailago bihurtzen dituzten portaeretara eroaten dute. Ikasteko motibazioak eta halaber gaurko ikaslearen alde aurreko esperientziak ere gero eta guttiago datoz bat irakasleek eurek bizi zituztenekin eta euren lanaren oinarri diren esperientziekin. Irakas-eginkizunaren oinarritzko helburu bat, ikaslearen arreta eta interesa irabaztea da edo, beste hitz batzuekin esanda, bere interesen eta etorkizuneko perspektiben munduarekin konektatzea eta **gatazka-egoerei eta portaera zailen aurre egin eta jarrera positibo eta eraikitzailetarantz orientatzea** ahalbideratuko duen komunikazio bat eurekin izatea.

Gizarte hiritarretan gero eta garrantzi handiagoa duen **zaingo-zeregina** ere esleitzen zaio eskolari. Zeregin honekin zerikusian, bi gizarte-eskari berri ematen dira: **eskolaketaren hedapena eta arriskuen aurrezaintza**. Irakasleari dagokio egiteko hau hezkuntza-edukinez betetzea, "hartzaindegi" huts batean gera ez dadin.

Ezagupen-garapenari berari dagokionez ere eskari berriak daude. Muinbakartasun-etapa hamasei urteraino gehitu denean, planteatzen ari dira irakas-iharduera moldakorra izan behar dela hautakorra baino gehiago eta, beraz, ardaztuago egon behar dela orientazioan. Orain ez da bakarrik irakatsi behar, orain ikaslearen prozesuan orientatu

behar da, bitartekoak erraztu behar zaizkio eta laguntza eman bere ikasbidearen definizioan eta etorkizuneko bere lanbideari begira ere erabakiak hartuz joan dadin.

Gainera hezkuntza-prozesuak, aldatuz doan gizarte batean bizitzeko prestatzea du helburutzat eta horrek esan gura du ez dagoela erreferentzia argi eta ziurrik; alderantziz, segurtasunik ezean, egongaitasunean, moldamenean eta balioaniztasunean hezi behar dela. Gertaera hau batzen badugu beronen beste garrantzia duen beste batekin, hau da, ikaslegoak daukan eskolaz kanpoko iturrietatik informazioa biltzeko ahalbide paregabearekin, eskolaren egitekoaren ardatza gehiago jarri behar da informazioa bildu eta hautatu eta sistematizatzeko irizpideak edukitzeko ahalmenean; ikaslegoak, azken batean, "ikasten ikasi" behar du eta, gainera, bereganatu behar ditu honek irakas-zereginean dakarzkina aldaketa guztiak.

Eskakizun berri hauek ez dute alde batera uzten jakintzagaien arloa. Ikaskuntza jakin batzuekin zerikusi duten eskariak ere badaude. Zehazki, hiru ikaskuntza-mota nahiko berri aipatuko ditugu: atzerriko hizkuntzak, teknologia berriak eta, gizarte diglosikoetan, hizkuntz normalizazioa. Eta guzti hau ahantzi gabe jakintzagai guztietan etengabe ematen ari diren aurrerakuntzak, beheengo hezkuntza-mailetan eurretan ere gero eta ikasketa goiztiar eta konplexuagoak eskatzeraino. Hauei gehitu behar zaie lanbide-prestakuntzarekin zerikusian, hala irakaskuntza orokorren osagai profesionatzailea nola lanbide-heziketa bereziaren balioanizdun orientabidea. Eskari hauei ikasketa-planean edukin berriak sartuta erantzun zaie; baina irakas-egitekoaren oinarrizko parte bat ikasketa-plana halako eran hautatzea da non ikasteko proposatzen den edukin-multzoak gizarte-eskariei erantzun egokia ematen dien, kultur proiektu koherente bat daukan eta zuzentzen zaion ikaslegoaren ezaugarrietara egokiturik dagoen. Zeregin hau berria da irakasleentzat, orain arte uste izan delako bere papera, kanpotik definiturik zegoen proiektu bat transmititu edo egokitzea zela besterik gabe.

Azkenez aipatuko genuke, irakasleek kontutan izan behar dituzten epistemologia-iturri berriak agertu direla. Ez dira zalantzan jartzen jakintzagaiek ezagutza-iturri direnez duten garrantzia eta interesa; baina kontzeptu-sare propioa duten interes-gune berriak agertzen dira. Ikasketa-planarekiko zehar lerroak deituak, ez dira bakarrik jakintzagaien edukinak gelan antolatzeko era berri bat, edukinek esangura ezberdin bat hartu eta euren arteko lotura berriak agerian jartzen dituen egitura ezberdin bat ere badirelako.

**Esan dugun guztitik ateratzen da irakasleak arazo eta egoera berriei egin behar diela aurre, bere lanaren helburuak ezberdinak direla, ikuspegiak hedatu egiten direla, jokamoldea ezberdina dela eta, azken batean, gizarteak bereganatik itxaroten duena ez datorrela bat orain arte egin duenarekin.**

## **2.- ESKOLARI EGITEN ZAIZKION ESKARIAK ZALANTZAGARRIAK DIRA ETA BAITA KONTRAESANKORRAK ERE.**

Gizarte-kontzentzua dago eskola-sistemak dituen bi xede nagusiri, hau da, gizarte-demokratikoan integratu eta lan-munduan sartzeari dagokienez.

Lehenengoak eskola-erakundeak jendearen garapen osoan lagundu behar duela pentsatzera garamatza eta, orobat, autonomia, sozialgintza eta eskuharmen kritikoa bezalako gaitasunen garapena, eta halaber oinarritzko kultur elementuen hornidura, helburutzat jartzera ere. Horretarako hezkuntza-sistema integrazioan, eskuharmen eta elkarbizitza demokratikoan, ezberdintasunaren errespetuan, diskriminazioaren gaitzespenean eta gizartean, sexuan edo kulturari sorrera duten desberdintasunen konpentsazioan oinarritzen da.

Bigarren xedeak, baliabide mugatuak, egitura-langabezia garrantzitsua eta teknologia aldakor eta gero eta sofistikuak dituen mundu baterako ikaslegoa prestatzera bultzatzen du. Xede honek pisu handiak ematen dio eskolak orain ere betetzen duen egiteko bati, hau da, biztanleko gaitasunen arabera banatzeari, eta konpetitzeko prestatu eta onenak hautatzeko eskolari egiten zaion eskakizuna gehitzen dio. Beste alde batetik askok ikusten du eskola gizarte-harremanetarako toki berezi bat dela, eurentzako garrantzi handia duelako onenekin eta eragin handikoekin tratatu ukaitea, pribilegiatuen taldeko partaide, ahal bada, izateko.

Elementu kontraesankorrak dituen xede bikoitz honek era askotako agerkizunak ditu.

Gurasoak, beren seme-alaben gan, beraz hezkuntzaren ikuspegi indibidualistarekin, pentsatzen dutenean hurrago daude eskolak batez ere eskolaketan batetik aurrera bete behar duen paperari buruzko bigarren kontzeptiotik. Ikastetxearen hautaketan elite-parametroak dituzte kontutan eta izaera integratzaileko proposamenik ez dute berenganatzen, nahiz eta gero, pentsakera orokorrean, eskola-erakundeak gizarte-kohesioari begira duen garrantzia ulertu eta defendatzen duten. Beraz, eskola-integrazioa inork ez du arbuiatzen, baina hautatuen artean egon daitezkeela uste duten guztiek ihes egiten dute modu konprometatuenetan praktikatzen duten ikastetxeetatik.

Elkarbizitza demokratikoaren hobekuntza eta gizartearen garapen orokorra lortze bidean eskola-muinbakartasuna zabaltzeko interesari buruz gizarte-akordio bat lortzea erraza da, gizarte-ezberdintasunei erantzun justuagoak ematea ahalbideratzen duelako, tolerantzia-gaitasuna aberastu eta elkarbizitza finkatzeko oinarri amankomun gero eta sendoagoak bilatzen dituelako. Baina gehien nahi diren eta sozialki ondoen balioesten diren ikastetxeak, hautapena praktikatzen dutenak izaten dira eta, batez ere, inor ere atzera bota beharrik ez dutenak, zeren mota honetako ikastetxeetara seme-alabak bidaltzeko orduan gurasoek eurek autobaztertu edo hautatzen dituztelako.

**Hainbat eta hainbat helbururi erantzun behar dion irakasleak, hala bere lanaren oinarri izango diren helburuetan nola printzipio eta balioetan dauden zalantzagarritasuna eta kontraesanak bizi ditu. Zailtasun hau oraindik handiagoa izaten da goiko mailetan, hauetan errazago dekantatzen direlako jokaera hautakorragoetara. Ikasleko desfavoratuagoa duten ikastetxeetan eurretan ere etengabeko tirandura egon ohi da Oinarritzko mailetan, ikaslegoaren baldintza eta premietara egokitu edo ikaslegoak oro har duten maila standardak erreferentziatzat hartzearen artean edo, beste era batera esanik, gelako ikasle guztiei kasu egin ala bakarrik kapazenak direnei egitearen artean.**



### **3.- GIZARTEAK ESKOLA ERAGINKORRAGO BAT ESKATZEN DU.**

Eskola-porrota, eskolaren eraginkortasunik-ezaren adibidetzat jo ohi da, nahiz eta batzuek, fenomenoaren urrunagotik ikusten dutelako, uste duten eskola-erakundeari eman zaion hautespen-egitekoarekin koherentzian dagoela. Azken suposamendu honetan emaitza hobeak bakarrik itxaron ahal izango dira eskolaren egitekoa aldatzen denean.

Irakas-eraginkortasuna, sarri, "input"aren kalitatetik, hau da, irakasten denaren, gehinetan kontzeptuzko, kalitatetik abiatuta bakarrik neurtu da, usterik ondorio, guttienez aurikusgarri, bezala ikaskuntza egoki bat ekarri beharko lukeela. Beraz, uste zen bat irakaskuntzarako gai zela eman behar zuen gaiari buruz behar den besteko ezagutza zuenean edo, kasurik onenean, egokiro ematen zekienean. Hala ere, emaitzen lorpenari dagokionez, eraginkortasunak ikaslearen ikaskuntzarekin erlazioa halako eran ere badu non irakasle jaun/andreak ez bakarrik duen ondo irakasteko erantzunkizuna baizik eta ikasle neska/mutilek ondo ikasteko erantzunkizuna ere berea den. Gainera, prozesu honetan ez dute parte hartzen kontrolagarri eta ebaluagarri diren kanpoko faktoreak bakarrik, baizik baita beti kontrolatu ezin diren hala irakaslearen nola ikaslearen barneko faktoreak ere eta halako eran non irakas-egitekoa emaitzen iragarlea baino gehiago gertaeren interpretagarria den. Bere zeregina aldagai kontrolaezinek baldintzaturik dago eta, beraz, hipotesiaren eremuan, etengabeko segurtasunik eza dagoen sailean alegia, mugitu behar da (esperimentuak gaseosarekin barik kabarekin, eta onenatarikoarekin gainera, eginda). Gaurregungo irakas-soslaiaren oinarritzko alderdi bat, izan ere, segurtasunik-ez horri "eusteko" gaitasunean eta arazoei soluziobideak etengabe bilatzen ibiltzean datza. Horrexelako jarrera bat edukita bakarrik itxaron daiteke erantzun eraginkorrak eman ahal izatea.

Eskola-eraginkortasunak zerikusi handia du ikaskuntzen funtzionaltasunarekin ere. Jakintza akademiko hutsak, jakintzen artean beti bizi izan diren irakaslearen hain gustukoak alegia, perspektiba akademikotik baino ez, edo nagusiki, proposatzen direnean, ez dute errazten jakintza horiek erabiltzeko egitekoa derrigorrezko eskola-mailetan bederen eta guttitan eramaten dute ikaslearen bizitza errealean eurekin baliatzea ahalbideratzen duten ikaskuntzetara. Gaurregun, gero eta gehiago eskatzen da ikaskuntzak bideratu behar direla ezagupen gehiago lortzera bakarrik ez, gaitasunaren garapen erreala batera ere baino. Eta beraz gaur hizkuntzak, batez ere erabiltzeko ikasten dira, teknologia-ezagutzak, berehala eta une ezberdinetan aplikatzeko modukoak badira baloratzen dira, gizarte eta zientzia-izaerako informazioek, inguruan daukagun errealitatea ulertu eta bere aurrean jarrerak hartzen lagundu behar dute. Ikasketen izaera profesionaltzaileak, oinarritzko lanbide-heziketa deitzen zaion horrek alegia, ikaskuntzen aplikagarritasuna planteatzera eramaten du. Akademikotasuna, bere baitan agortzen diren esangura eta esannahia dituen jakintza bat baino ez den bitartean, jakintza akademikoak mundu erreala eduki behar du erreferentziatzat eta arazo errealei aplikatzeko modukoa izan.

#### 4.- KALITATEAREN ERRONKA.

Irakaskuntzaren kalitateari buruzko gogoeta, eraginkortasun handiagoaren premian ekitera dator, nahiz eta kalitatearen adierazleak zeintzuk diren aurretik finkatu beharra egon eskola-eraginkortasunari eman nahi zaion esangura ulertzeko. Dena den, ekoizpen-enpresetan erabiltzen hasirik dagoen eta zerbitzuetara ere eraman nahi den kalitate osoari buruzko gogoetak ez ditu emaitzak bakarrik kontutan, prozesuak eta bitartekoak ere baino.

Irakaskuntzaren kalitatea ezin da mugatu irakasle bakoitzak bere gelan daraman banan-banakako iharduerara, alderantziz baino, ikastetxearen eta irakasle-talde osoaren ekintza bezala planteatu behar delako. Hementxe oinarritzen da beharrezko izatea:

- Ikastetxearen proiektua, taldeak proiektuarekin lotura izatea, proiektuaren inguruan egiten den lana koordinatuta egitea, autonomia eta erantzunkizuna bera praktikan jartzean.
- Proiektuarekin koherente izanda, egitekoen eta zereginen banaketa egoki bat eta hori burutzeko ardura dutenen koordinaketa errazten dituen ikastetxearen eta bere baliabideen antolamendua eta kudeaketa; horretarako zuzendaritza-talde gaitua eta eskola-elkarte osoak eskuhartzeko bideak behar dira.
- Irakaslegoaren etengabeko prestakuntza eta hezkuntza-berrikuntzako prozesuak, bere praktika etengabe hobetzea eta planteatzen diren arazoei erantzun egokiagoa ematea ahalbideratzen dutenak; azken batean, lanbide-gaitasuna gehitzen laguntzen dienak.
- Lanbide-figura berriak edo, guttienez, soslai berriak irakaskuntzaren barruan: batzuek eskolari eskatzen zaizkion egiteko berriei erantzuteko eta beste batzuek irakasleei aholkua eta laguntza emateko, egoera problematiko berriei aurre egin beharra dutenean.

Kalitate-eskakizuna gaurregun denera hedatu da; beraz ez da harritzekoa eskola-mundura ere iristea. Eskakizun hau ekoizkortasun-kontzeptuari lotuta egon ohi da, hau da: eskuraturiko emaitzak ekoizpen-kostuarekin zerikusi dute. Gogoeta ekonomizista gero eta errotuago dago. Gogoeta-mota hau oso gaizki ikusia izan da eskola-mundutik eta oro har zerbitzuenetik, ekoizpen-munduan bakarrik erabiltzekotzat jotzen zelako. Hala ere, ekonomia-krisiak agerian jarri du ekonomia-baliabideak urriak direla eta, beraz, dauden baliabideei duten errentagarritasun guztia atera behar zaiela eskola-sisteman bertan ere. Beste alde batetik egiaztatu da baliabideak gehitzeak ez duela lortzen prozesuak eta emaitzak automatikoki hobetzea. Irakaskuntzaren arazoa, jakina, baliabide erabilgarrien kantitatearen mende dago egon, baina horren beste edo gehiago dago bere kalitatearen menpe ere, batez ere giza-baliabideak direnean; hauetan kantitateaz gain, funtsezkoa da gaitasuna eta egitekoen esleipen zuzena edukitzea eta lanean koordinaturik eta proiektuan inplikaturik egotea.

## **5.- ESKOLAK ESKARI BERRIEN AURREAN DUEN ERANTZUNKIZUNA.**

Eskolari gero eta gehiago eskatzen zaio egunetik egunera, gizarteak uste balu bezala eskola dela arazoei erantzuna emateko gai den erakunde bakarra; baina, era berean, mundu guztiak uste du ez duela fruiturik ematen. Ez dago argi iritzi orokortu hori eskolak dituen akats konpongarriei sor zaien ala planteatzen diren arazoen neurriari. Agian, kausa bata eta bestea izango dira egiak eta, horrela balitz, aldaketak egon beharko lirateke ez bakarrik eskolan, baizik orobat gizarte osoak bere hiritarren prestakuntzan eta hezkuntzan duen erantzunkizuna ulertzeko moduan ere.

Eskariak gehitzeak eta, ondorioz, eskolari esleituriko egitekoak ugaritzeak, erantzunkizuna irakaslegoari eman eta hain eremu eta gauza askotan prestatzeko arriskua du non balioaniztasun hori ezagupenean nahasketa, arinkeria eta zalantzarritasuna sortzean bilaka daitekeen.

Egoera honetan urgentzia du mugatzeak zeintzuk diren eskolaren eta irakaslegoaren erantzunkizun bereziak eskari-kantitate hazkorrari dagokionez eta eztabaidatzeak ea eskola izan daitekeen eta izan behar duen eskakizun guzti hauen egoitza eta agente nagusia. Arazoa ez da konpromezuei ihes egitea, eskolaren zeregina eta bertan lan egiten duten profesionariena berkokatzea baino, kasu batzuetan ikaskasle-egitekoa desberdinduz soslai berriak sartuta eta beste batzuetan bere alderdi jakin batzuk osatu eta irakasleek egiazki berenganatu ezin dituzten egitekoak irrazionalki hedatzeari mugak jarrita, horrek desprestigiora eta ondorioz deszilegitzapenera eramango lituzkeelako.

Eskolak aldaketa eta eskari berrien aurrean duen oinarrizko erantzunkizuna da definitzea zein den testuinguru berri honetan doakion eskola-kultura eta zein motakoa den ikasleagoak ikasteko eskatzen dion lanbide-eskuharmena, kontutan izanik, helburu jakin batzuk betetzeko, beste erakunde batzuekin (museo, biblioteca, orkestra, antzerki, ...) eta beste agente batzuekin (udal, elkarte, sindikatu, enpresa, ...) koordinatu beharko duela bere iharduera eta hauek ere hedatu egin beharko dutela euren erantzunkizun-eremua.

## **B.- IRAKAS PROFESIONALITASUNAREN DEFINIZIOA**

Lanbideari buruz dugun kontzeptua ez da estatikoa, ez orokorra, testuinguruko eta jendeak eraikitako zerbait baino; eta, beraz, ideologiak eta gizarteak markatua. Hau horrela gertatu da lanbide gehienetan, egikaritzza-baldintzak denborarekin aldatuz joan direla ikusten delako; baina hau batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuak betetzen dituzten lanbideetan gertatu da, eta hauen artean irakasle jaun-andrearenean jakina.

Irakaslearen egitekoa, eskolako eta gelako profesionaria denez, eztabaidatzen den guztian, eskolari eta irakaskuntzari buruz bakoitzak duen kontzepzioarekin eta gehiago oraindik ezagutza nork sortzen duen, nola helerazten eta ikasten den eta teoriaren eta praktikaren artean nolako harreman-mota ezartzen den gaiei buruz helerazi nahi duen idearekin zerikusit nahitaez duten irakaslearen irudiak sortzen dira.

Eskolaren egoera aztertu dugu eskari zaharrak eta berriak biltzen dituen eta lanbide-portaera ezberdina eskatzen duten interes eta balio inoiz kontraesankorrak elkartzen dituen korapilo legez. Gure eskoletan egon da, eta dago, gaurkoetatik ezberdinak ziren premia eta lehentasunei erantzuteko beste garai batzuetan balio izan duen erakunde eta lanbide-kultura mota jakin bat. Orain, aldiz, aldatu egin da eskenategia, ez bakarrik hazi eta desberdinu egin direlako hezkuntzari egindako eskariak, baizik eta baita lanik ezak eta lanbide-kualifikazio mota ezberdinaren eskakizunak, derrigorrezko irakaskuntza-aldia luzatzera eramanez dutelako, pedagogia-ezagutzak aurrera egin eta prozedura eta jarreretan arreta gehiago ipini duelako, komunikabideak orotan egoteak eskolaren irakaskuntza-zeregin nagusiari garrantzia kendu diolako, familia-egituran, ..., kultur aldakuntzak eman direlako, .... Egoera berri hori, hurrengo guzti hau egiten duen hezkuntza-erreforma batean bildu eta artikulatu da, alegia, sistemaren egitura aldatu, hezkuntzaren helburuak berdefinitu, ikasketa-planaren kontzeptzioa eta edukina aldatu eta irakasle-mota berri baten eskakizunak planteatu. Azken batean, testuinguruak aldatu dira eta eurekin eskolaren egitekoa. Orain irakasleak lan egiteko erak aldatu beharra dauka edo, beste berba batzuekin esanda, irakasle izateko eredu berri bat aurkitu beharra du. Agian hau orain errazago izango litzateke baldin irakasleak eurak inplikatu izan bagenitu tamaina honetako erakunde-aldaketaren definizioan.

Azken aldian hainbat forotan egiten da gogoeta irakaslearen paper berriari buruz eta penagarri da interes hau neurri handi batean sor izatea iritziz publikoan, politikamunduan eta baita ikasketa eta hezkuntzako lanbide-munduetan ere honako antzinako ideia zahar hura egoteari, hots: irakasletza, beste buru batzuen subsidiario den zeregina dela alegia.

Irakasle-lanbidea, kanpoko buruek eta inoren ereduarekin aztertua izan da, bere izaera zalantzan jarri, bere mugak agerian ipini eta eskuduntza eta erantzunkizun berrietara zabaltzea proposatzeko. Beraz, aurreko problema bat dugu, hots: gizartearen sinestazte irakasle profesionaliek ezagupen berezi eta berezitu propioa dutela eta irakasleak profesionaliak direla; honek begi bistan jartzen baitu talde honek duen ahultasuna bere lana inskribatzen den gizarte-bilbapenean.

Ez da erraza definitzen zer den irakasle-lanbidea iharduera-eremu berezia eta ongi mugatua izatea egiten duena eta zailtasun hau handiagotu egiten da ikusita eskolari zuzentzen zaizkion eskarien ugaritasuna eta heterogenotasuna, eta halaber bere dinamismoa eta kontraesanak ere.

Hala ere, irakasleak profesional gisa erantzun nahi die eta behar die herronka berriei, bere iharduerak lanbidetzat ulertzen denari erantzuten dionentz eztabaidan hasi gabe, hasieran hartu duen prestakuntza egokia denentz eztabaidatzea alde batera utzita, baina etengabeko prestakuntza-eremuan egin beharreko esfortzuekin tratatuak egiten ere ibili gabe eta jakinik kompetentzia handia egiten diotela eskola-sistematik kanpo, baina hala ere bertatik oso hurbil.

**Ez dugu bilatu nahi irakaskuntza denboraz kanpoko zerbait dela pentsaraztera eramanez gaitzakeen irakasle ideal hori; guk, erreformak eskaintzen digun eta, beste gauza batzuen artean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ulertzeko moduari, ikastetxeen egitekoari eta irakasleen jokatzeko moduari**

**ukitzen dien ikasketa-planaren marko berri hori probetxatu nahi dugu bere profesionaltasuna itxuratzen duten ezaugarriak azpimarratzeko.**

Hezkuntza-politika berri bat bultzatzeko orduan guztiak datoz bat gelan gertatzen denaren profesionari erantzule denez irakasleak duen funtsezko garrantzian. Hala ere, legeetako testuetan, irakas-profesionaltasuna ikuspuntu korporatibo eta administratiboegiarekin ukitzen da, "profesionaria" bereizten duten ezaugarrietan behar den beste sakondu gabe.

Irakaslea, profesionari gisa definitzen saiatzerakoan, beharrezko iruditu zaigu bere eginkizun esanguratsuenak hobeto mugatzen laguntzen duten oinarritzko hiru alderdi kontutan izanda egitea, alegia, irakas-ihardueraren eremua itxuratzen duena, irakas-ekintza ematen den testuinguruetan bera bornatzen duena eta lanbidearen eboluziozko aurrerakuntza-ikuspegi baten premia lanbide-garapenaren hitzmugetan ezartzen duena. Azken batean irakas-profesionaltasuna definitu nahi da kontutan izanik: irakas-ihardueraren eremua, irakas-ekintza burutzeko dagoen testuingurua eta lanbide-garapena.

Aurreko definizioaren emaitza gisa, zalantzan jarriko da indarrean dagoen irakasle-lanbidearen kultura eta lanbide-kultura berri bat soslaituz joan beharko da. Gogoeta teorikoak, koherente den lanbide-kultura bat itxuratuz doazen neurrian joango da eraikiz irakasle profesional berria ere.

## **1.- IRAKAS-IHARDUERAREN EREMUA.**

Lanbide bat, lehenengo eta behin, egiten duenak definitzen du. Eskola-erakundeari une bakoitzean esleitzen zaion gizarte-egitekoaren arabera eta hala hezkuntza-zientzien ekarpenak nola esperientzia praktikoak kontutan izanik, irakaslearen eginkizun propioak definitu behar dira, hau da, zer egin behar duen eta nola egin behar duen.

Irakasle-lanbidea ez da definitu nahi beronek bakarrik ihardun dezakeen eremu bat mugarritu eta gainerakoak baztertuta. Alderantziz baino, erantzunkizun-arlo bat eta hori bete ahal izateko jarraipideak ezarri nahi baitira.

Labur-labur esan daiteke, irakas-ihardueraren eremua ikasketa-planaren azken erantzule denez duen egitekoari dagokiola.

Lanbide-pentsamoldea bultzatzeko faktore erabakiorrak, hauek dira: ikasketa-plana ulertzeko era, bera burutzeko mekanismoak, horretarako dituen bitartekoak eta guzti horretan irakaslegoari esleitzen zaion papera. Ikasketa-plan ireki bat hartzeak suposatzen du irakaslegoak eskuduntza eta erantzunkizun gehiago duela zer eta nola irakatsi eta irakaskuntza-prozesuak sekuentziatzeko modu egokienari eta bere ebaluaketari buruz erabakitzeke orduan.

Aukera honek ondorioak ditu ikaslegoan, bere hezkuntza propioaren benetako protagonista bilakatzen delako, eta irakaslegoan ere, bere ikaslegoaren ikaskuntzan bitarteko gisa duen errol berria, eginkizun berriak egin beharra dakarzkiona eta lanbide-

banakokeria utzi eta irakasle-taldearen barruan lanbide-egikaritza koordinatu bati bide ematea eskatzen diona, bereganatu behar duelako.

Lortu nahi da gaurko irakasleak gai izatea definitu den markoa probetxatzeko, bere ezaugarri bereziak, batzuk berriak eta beste batzuk berformulatuak, potentzia ditzaten eta eurek bakarrik bete ditzaketen egiteko jakin batzuen aintzatespenean lagundu.

Lehenengo hurbilpen batean, irakasleen lanbide-iharduera definitzen duten ezaugarriak hurrengo alderdi hauen inguruan ari dira gira-biran:

- 1.- Erabaki-autonomia bat, ikasle neska/mutilentzat baliagarri diren ikasketa-proiektuak landu eta gauzatzeko, gainerako lagunekin egindako lanetik abiatuta.
- 2.- Ikasle neska/mutilen aniztasunari arreta-gaitasun handiagoa izatea, banakako premiak eraginkorki erantzuten dien hezkuntza muinbakarraren proiektu batean, bere beharrianak eta ikaskuntza-erritmoak diagnostikatu, proposaturiko helburuak eskuratzera eroan, ebaluatu eta orientatzeko gai den hezkuntza-prozesu bat eroanik.
- 3.- Norbere praktikari buruz gogoeta egin eta xede berrien zerbitzuan egindako ebaluaketaren kultura berria garatzeko gaitasuna.
- 4.- Ezagutzen antolamendu hobe bat eta ikaskuntzen ikusmolde funtzionalago bat ahalbideratuko dizkioten gizarte-ingurunearen ezagutza eta kultur prestakuntza zabal bat.
- 5.- Ikaslegoak eskola-ekintzen multzoan duen eskuharmenaren garapenean eta sakonketan arreta jartzea.

Lanbidearen idealizazioan erori gabe, horrek ez lukeelako lagunduko irakaslearen egitekoak benetan definitzen eta guttiago oraindik bere gaitasun eta eskuduntza errealetan, diogu profesionari berri hori ulertu behar dela taldeek eta gizabanakoek gelan bizi duten egoeraren hitzmugak ulertzeko eta ikasketa-planeko edukinak, uneoro egokitu eta euren eraginkortasuna eta ontasuna esperimintatu eta ebaluatzen dituenak, ikasteko estrategia malguak diseinatu eta eraikitzeke ezagupen zientifikoa erabiltzen duen intelektualtzat.

Lehenengo hurbilpen honek irakasle gai, autonomo eta kapazago bat marrazten digu. Hala ere azpimarratu behar da hitz potolo hauek praktikarekin bateratzean kontraesan jakin batzuk zorrozten direla:

- a) Eskola-inguruneak aurre egin behar izaten dio, profesionariarenak berarenak ez diren esferen menpe sarri dauden helburu goibel eta aldakorrak dituen iharduera bati.
- b) Eskola-errealitatea interes eta asmo ezberdinak eta inoiz kontrajarriak dituen eta horren erdi-erdian maisu-maistrak dauden toki bat da; honek ez du errazten irakasleek eurek lanbidearen egikaritza ulertzea eta are kontrolatzea ere.

- c) Hezkuntzako teorikoek eta berezilariek ere ez dute asko asmatu profesionalismoa sarri prozedura tekniko-instrumentalak maneiatzera mugatu dutenean, eurentzat gordez ezagupena eta ikerketa ekoizteko egitekoa.
- d) Eskola, irakaskuntzaren erabateko arduraduna zenez, lanbide-gaitasunaren ardatza izatetik, beste erakunde eta agente berdintsu kualifikatuekin banatzera pasatu da.

Dena dela, gaurregun eztabaidatzen ez den kontzentzu bat baldin badago da kalitatearen hobekuntzarik ezin dela egon, ez badago irakaslego gaitu, behar bezala hautatu, profesionalki motibatu eta etengabe hobetzeko ebaluatzen duen irakaskuntza-mota batean bere gaitasunak garatzeko moduko lan-baldintza batzuk dituen.

Ikasketa-planari buruz irakasleak duen erantzunkinak, gaur irakasleari irekitzen zaizkion hiru iharduera-arlo garrantzitsu hartzen ditu:

1. Erreformatik, irakatsi behar dena ezagutzen duen, baina batez ere hori eskolara eramaten dakien profesionari bat behar duenez, oinarrizko egitekoetako bat, ikasketa-planaren definizioa inplikatzeko duena da.
2. Behin eskolan dagoela, jakin behar du profesionariari "herronka botatzen" dioten faktoreak etengabe elkarrengaitan ari diren prozesu batean bitartekoa izatea dela bere zeregina eta, beraz, jokatu behar duela pedagogia-bagaia egokiarekin eta talde-laneko testuinguru batean.
3. Bere ebaluaketa-egitekoa ez dela hedatzen emaitzetara bakarrik, aurreko guztia kontrolatu eta bere proposamenak etengabe berregokitzea ahalbideratzen dioten prozesuetara batez ere hedatzen dela baino.

### **1.1. Ikasketa-planaren hautatzailea eta moldatzailea.**

Gaur irakasleari egiten zaion esleipen berriena, ikasketa-planaren garapena da. Iharduera hau orain arte beste "agente" batzuekin banatzen zuen, beraz irakasle berriaren profesionaltasun indartsu batek, ikasketa-planaren garapenean dagoen paper-banaketa hori desberdina eta ikasketa-plan horren "itzultzaile" batzuen, gehienetan kanpokoan, aldekoa ez izatea lortu beharko du.

Bere erantzunkizuna kanpoko proposamenen betetzailerik huts izatea baino harago doa eta epistemologia, metodologia eta didaktika-aukera ezberdinen artean hautatzeko behar den prestakuntza eskatzen dio. Hautaketa hau bakarrik egin daiteke hezkuntzari esleituriko helburuekin koherente den kultur proiektu batetik eta bere esperientzia ebaluatzea eta programaketan beharrezko diren aldaketak asmatzea ahalbideratzen dion praktikari buruzko gogoeta egoki batetik. Berariazkotasuna eta eraginkortasuna, ikasketa-planeko erabakietan beti kontutan izaten diren bi nota dira.

Ikasketa-planaren zuzenketa eta egokitzapen-eginkizunak ezin dira bakarka burutu, irakaslegoak talde bezala hartu behar dituen eskakizunak direlako. Eginkizun hauek:

A) Urrats mordo bat eskatzen dute:

- Curriculum-proposamen berrien edukina ulertzea.
- Hezkuntza-iharduera garatzeko daukagun errealitate konkretua analizatzen jakitea.
- Ikastetxeko ezaugarri bereziatara egokitzen diren curriculum-proposamenak garatzea.

B) Bakoitzaren lanari koherentzia eman eta orientatzen duten erabaki-mordo bat hartzea suposatzen dute:

- Etapa eta mailako helburu orokorrei buruz, alderdi esanguratsuenak, arazoak eta zailtasunak, arlo ezberdinen arteko loturak, ... analizatuta.
- Edukinak maila, etapa eta zikloetan egokiro eta mailaz maila banatu eta koordinatzeko moduari buruz, koherentzia hala zuta bola horizontala lortzeko xedeaz.
- Ebaluaketari buruz, irizpide amankomunak bilatuta eta elkarreragina duen benetako prozesu batean bihurtzea lortuta.
- Aukerako jakintzagaien hautakerari buruz, muinbakartasuna erraztu eta era berean aniztasunari erantzun egokiak emateko.
- Printzipio metodologikoei begira nabarmenenak diren arazoei buruz.

## **1.2. Irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuaren gidaria eta bitartekaria.**

Gauza nabaria da hezkuntza ulertzeko era berri bat dagoela eta era berri hau gehiago hurreratzen dela honako PROZESU-mota honetara: prozesu honetan ezagutzak irakasleen eta ikasleen artean eraikitzen dira eta irakasle jaun/andrea laguntza bat baino ez da, nahiz eta laguntza hori ordeztuzina eta irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuan, hala plangintza-fasean nola ikasle neska/mutilekiko hezkuntza-elkarreraginari dagokion guztian, aktiboki parte hartzen duena izan.

Hezkuntza-elkarreragina ikusteko era honek eskatzen du profesionari hori:

- Aurredefinitutako helburuen betidaniko jagole-lanak baino harago joatea eta ikaslegoaren hezkuntza eta prestakuntza-prozesuetan zehar erantzunkizunak hartzea.
- Ikaskuntzak errazten eta ezagupen eta esperientzia-arloak gero eta gehiago integratzen laguntza ematen duen bitarteko bezala jokatzeko, errealitatearen ulermen gogoetatsu eta kritikoa lortzen ikaslegoari errazteko; honek eroango du ezagupenen domeinua gaitasunetan bihurtu behar dela ekitera.
- Irakaskuntza/ikaskuntza-prozesua arautzeko gai izatea, hezkuntza-sekuentziaren garapenari buruzko erabakiak hartuta eta bere eraginkortasunaren egitekoan bere eskuharmen propioa berrikusita. Ekinkizun hauei aurre ongi egiteko, irakaslegoak:



- Ikusita eskola-errealitatearen izaera heterogeno eta desberdina, jabetu behar du ezagupenaren berreraikuntza gelaren barruan sustatzeko formula bakarrik eta ziurrik ez dagoela.
- Proposamen baten ontasuna, berak bilatzen dituen asmoei eraginkorki erantzuten diola egiaztatu arte erlatibizatzen duen iharduera ireki eta malguarekin bateragarri den plangintza bat egin behar du.
- Ikusita hezkuntza-prozesu guztiek duten izaera funtsean zehazgabea dela, eskuhartu behar du, gero egokitzapen eta hobekuntza-prozesu batean kontrastatu eta ebaluatuko dituen diagnostiko eta hipotesien laguntzarekin.
- Plastikotasuna, hezkuntza-eskuharmenaren funtsezko elementu bat da iharduera ezberdindua ahalbideratzeko orduan. Alderdi zeharo ezberdinetara hedatzen den eskuharmen hau beti izango da gertagarri ikasleek izaten dituzten eragozpen eta aurrerapenetan.

Jokamolde honek, irakaslearen hurrengo irudi hau indartzen du, alegia, irakaslea, profesionari aditu bezala lan egitera beharturik dagoen errealitatean, ikaslego, gela eta ikastetxe koetan alegia, eskuhartu eta eraldatzeko prestakuntza, baliabideak eta gaitasun handiagoa eskatzen dituen erabaki-mordo bat hartu behar dituen profesionari ordeztezin eta ordegabea dela hain zuzen.

Azkenez ez da ahantzi behar, gelan definitzen den harreman-marko orokor bat dagoela, konfidantzarekin eta elkarrekiko errespetuarekin, autoirudi positibo bat ikaslegoaren aurrean eraikitzeko, lankidetzak-ikaskuntza bultzatzeko, ... irakasleak bere laguntza ematearekin zerikusi duena; beraz irakasleak, ikasle neska/mutilen garapenean hunkimendu-faktoreek duten eragina kontutan hartzen duen giroa gelan sortzeko moduan jokatzeko jakin behar du.

### **1.3. Ebaluaketa-egitekoa.**

Erreformaren gizarte (eskola promozionatzailea), kultur eta pedagogia (hezkuntza esanguratsua) xedeetako asko, irakasleek ebaluaketari ematen dioten tratamenduaren mende daude. Irakaskuntza/ikaskuntza-prozesu osoa baldintzatzen duen gakoak, "zertarako ebaluatzen da" galderari erantzuteko modua da.

Ikasketa-plana aplikatzeko prozesu ireki batean, prozesu horren kontrola edukitzea derrigorrezko gauza da eta hori ezin da egin ebaluaketa prozesu osora zabalduta baino.

Alde batera utzi behar da hurrengo ideia hau: Ikastetxeetan eta irakasleen artean ebaluaketari buruz hitz egiten denean guztia ikaslegoaren eremura mugatzen dela eta sistemak funtzionatzen duela hauek "gainditzen" badute. Ebaluaketa hedatu behar da hala ikasle neska/mutilen ikaskuntzetara nola irakaskuntza-prozesuetara eta irakaspraktikara bertara. Ebaluaketa hau, irakasleek banaka eta taldean eginga, ulertu behar da hezkuntza-ihardueraren osagai legez eta ez ikaslegoaren eskolatzeko-prozesuaren gehigarri bat bezala, ez hautapen-prozesu bat bezala.

Ikaslegoari eta ikaskuntza-prozesuari dagokionez, ebaluaketari bi egiteko nagusi esleitzen zaizkio:

- Ikaslegoaren banakako ezaugarrietara elkarren segidako eskuharmenen bidez egindako pedagogia-egokitzapena ahalbideratzea. Honek esan gura du ikaslearen hasierako egoetatik abiatu eta ikaskuntza-prozesuan egiten dituen aurrerakuntzak eta aurkitzen dituen zailtasunak zehaztu behar direla, behar den laguntza emateko.
- Proposatutako helburuei begira hezkuntza-asmoek erdietsi duten maila zehaztea; hau eta kalifikazioa ez dira sinonimoak.

Azken batean ebaluaketa, zer hauek baloratzera hedatzen da: ikaslegoan ematen diren aldaketak, erabilitako metodoen eta baliabideen baliagarritasuna, hezkuntza-praktika bera, programaketen eta irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuan eragina eduki dezakeen beste edozein balioren egokitasuna; eta ahalbideratu behar du jakitea ez bakarrik ikasle neska/mutilek ikasi dutena, baizik nola berenganatu duten, zenbat akats eta zergatik eman diren zehazten, nola egin abiapuntutik aurrera, zeintzuk diren planteatu beharreko aldaketak, e.a.

Bere praktikarekin koherentzia dauden eta aldatu behar den ala ezari buruz erabakiak hartzeko balio duten ebaluaketa-irizpideak ezartzeko gaiturik, bakarrik dago ikastetxeko irakasle jaun/andreen taldea. Profesionariaren eskuharmenak zentzua eta garrantzia hartzen ditu, funtsezkoa delako ezartzen diren irizpideak modu mekanikoan ez aplikatzea, norbere hezkuntza-proiektuaren helburuetara eta ikasle neska/mutileen ahalbideetara egokituta baino.

Jokamolde honi atxekitzeak esan gura du ebaluaketaren hala kontzeptua bera nola beti erabili diren prozedurak aldatu behar direla. Beraz, irakaslegoari datorzion karga, handia bezain erabakitzailea da irakaskuntzako profesionari gisa birbaliotzeko; Irakasleak bezain ondo, ikastetxetik kanpoko ez ikastetxeko bertako inork ez dezake kontrola ikasle neska/mutil bakoitzaren ahalbideetara ikaskuntza egokitzeko bere egoera erreala zein den jakitea ahalbideratzen duten estrategiak.

Honek guztiak profesionariari eskatuko dio aproban ipintzea sistemak bere eskuetan jarri eta berak ezagutu eta aplikatu behar dituen prozedura konplexu mordo hori domeinatze gaitasuna.

Irakasleari eskatuko dio orobat, ikasleek prozesuaren amaieran eskuratutako emaitzen balorazio konkretu eta zehatza egitea, hauen arrakasta edo porrot-mailari buruz bere iritzia ematea, zerkusirik eduki gabe helburuak betetzeko orduan hezkuntza-prozesuak izan duen arrakasta/porrotari buruzko beste gogoeta batzuekin.

Ondorioak dituen ebaluaketa bat da zeren maila-igarotzea edo titulua eskuratzea ahalbideratzen dituzten ikaskuntzak berronesten dituelako eta ez ikasketa-ondorioak bakarrik, gizarte-ondorioak ere badituelako. Irakasleak gaurregun duen botere-zati handi batek zerkusia du eskola-curriculumaren barruko ikaslegoaren igarotze-sistemaren bidez egikaritzen den irakaskuntzaren egiteko distributiboarekin.

Notek eta eskola-ebaluaketek, gizarte, ikasketa eta norbanako ikuspuntutik ikasle neska/mutilentzat duten garrantziak kontrastasan handia du horiek esleitzeko erabiltzen diren prozesuen errazkeria eta subjektibotasunarekin.

Ebaluaketako prozedurek eta formatoek sarri ez dute koherentzia gehiegirik izaten ikasle goaren ikaskuntzarako planteatzen diren eta erreferentzia izan beharko liratekeen helburuekin eta sintomatikoa da hezkuntzarako xede berriak ezartzen dituzten xedapenen erantzunkizuna duten administrazioek eurek ere ia-ia aldatu ere ez egitea ebaluaketa-eskemak, nahi den eta planteatu den ildotik balorazioa egiten laguntzeko.

## **2.- BERE IRAKAS-IHARDUERA BURUTZEKO DAUKAN TESTUINGURUA**

Irakaslearena bezalako lanbide bat definitzen duen bigarren elementu bat, bere iharduera burutzeko daukan testuingurua da. Irakas-iharduera, gizarte-testuinguru batean kokaturik dagoen ikastetxe batean burutzen da beste profesionari batzuekin lankidetzan.

### **2.1. Ikastetxea.**

Baliabide erabilgarri guztiak koordinatu eta hezkuntza-elkarte osoak alde zuzenetik kontzentratutako lehentasunak eta helburuak lortzera era planifikatuan orientatzen dituen hezkuntza-ihardueraren oinarriko unitate denez, gelak ikastetxeari utzi dio bere tokia.

Hezkuntza-iharduera berezia eta propioa garatu ahal izateko ikastetxeek dute irakasleek bete behar duten proiektu bat. Hau da, ikasketa-planaren definizioan eta garapenean duten autonomia, eskola-elkarteak IHPean eta irakasle-taldeak IIPean harturiko erabakiek mugaturik dago.

Ikastetxeen lehentasunak eta joka-ildoak definitzen dituzten proiektuak ezartzeko orduan hezkuntza-elkartea egoteak elementu berri bat sartu duen arren, hori ezin da inola ere hartu irakasle-taldearen propioki diren eskuduntzetan jarritako mugapentzat, alderantziz baino, irakasleak beste batzuekin banatu arren, eskola-elkarte horretan postu ezberdin baina eztabaidaekin bat duen autonomia batera behartzen duen faktore berri bezala alegia. Paper honek profesionariei ikastetxea kokatzen den gizarte-ingurunearekin "enpatia" handiagoa izatea eskatzen die eta bere ezagutzaren eta bere lanbide-praktikaren ekarpen handiago bat egitea, talde-goinahiak bideragarri eta eraginkor egiteko.

Ikastetxea hezkuntza-ihardueraren unitate bezala hartuta eta ikastetxearena berarena den erabakiak hartzeko autonomia kontutan izanik, irakasle-lanbidea, iharduera amankomunari laguntza eman eta, era berean, bere baitako multzo osoak baldintzatu eta indartzen duen faktoretzat ulertu behar da.

### **2.2. Talde-lana.**

Hainbat aldiz aipatu dugu irakaslearen lanbide-iharduera elkarrekin banaturiko talde-lan bezala ulertzeko dagoen premia, horrela jakintza baliagarriago bilakatzen delako eta profesionaltasunaren talde-dimentsioak honi gizarte-eraldaketarako gaitasun handiagoa ematen diolako.

Hezkuntzaren helburu askok, eskolaketa osoan zehar irakasle-talde osoak etengabeko arreta izatea eskatzen dute. Helmuga jakin batzuk ezin izango dira lortu irakasle guztien iharduera koherente bat egonda baino eta irakasle-talde osoak sostengaturiko curriculum-proposamen bat eta hezkuntza-proiektu bat egotearen menpe dago.

Talde-lana lehenengo une batean norbanakoak duen lanbide-autonomiaren mugapentzat har daiteke, hala ere irakas-profesionaltasuna ikasketa-planaren eta bere antolamenduaren talde-dimentsioetara hedatzeak suposatzen du irakasleek beren lanbidearen eskakizun berriei erantzuteko beharrezko diren profesionaltasun-marjina handiagoak eta ezagupen-eremu berriak berreskuratzen dituela. Taldean egindako plangintza eta antolamendu-aldagaien kontrola, ezinbestekoak dira autonomiaren testuinguru berrian.

Lanbide-egikaritzea talde-lanean abordatzeko premia, oso ondo oinarrituta dago. Helburu batzuk ezingo dira lortu baldin koherentzia horizontala eta zuta bermatzen dituen irakasle-talde osoak sostengaturiko hezkuntza-proiektu bat ez badago eta gizartetik eskolara iristen diren eskakizunetako askok ezin izango du erantzun osorik eduki ekintza koordinatu batekin baino.

Irakasleak, gainerako irakasleekin batera, eskola-antolamendurekin zerikusi duten arazoetan eta kanpoko elkartearikiko harremanetan eskuhartu behar du, arazo-mordo bat soluzionatzeko behar den ezagupen estrategiko bat garatzeko.

Azken finean, indibidualismoak funtsezko hezkuntza-alderdiak mozten ditu.

Talde-bitartekotza profesionala laneko talde-egoeran beti egon den arren, aintzatetsi beharra dago hezkuntzaren eremuan horrek duen garrantzia, arrazoi hauen eraginez:

- 1.- Ikasketa-plana hartzen duen ikaslegoak, tratamenduetan koherentzia eskatzen duelako.
- 2.- Jakintza ezberdinen kultura integratzailea garatu beharra dagoelako.
- 3.- Arloen bidez helburu eta trebetasun amankomunak lortu behar direlako.
- 4.- Ikasketa-planak sekuentzia-etengabetasuna eskatzen duelako.
- 5.- Arloetariko bakoitzaren eremua gainezkatzen duten ikaslegoaren beraren eskakizunek ...
- 6.- Antolatutako testuinguru batek ikaskuntzako giroa errazten duelako.

### 2.3. Gizarte-testuingurua.

Hezkuntza-ekintza ez da jada ikastetxearen eskuduntza eksklusiboa eta beraz ezin da geratu bere iharduera-eremura mugatuta. Honek behartzen gaitu gogoraztera hezkuntza-ekintzak beste eremu batzuetan egikaritzen dituzten beste profesionari batzuekin edo bestela hezkuntzarekin osoro loturik dauden egitekoak (osasuna, gizarte-ongizatea, kultura, ...) egikaritzen dituztenekin buru ezberdinek duten erantzunkizuna eta komunikazio eta lankidetzabideak ezartzeko dagoen premia. Arazo honi buruz dokumentuko lehenengo atalean aipatu dugu zerbait, eskari berrien aurrean eskolak duen erantzunkizunaren mugapenari buruz hitz egin dugunean.

Hezkuntza-sistemari buruzko kontzeptu berri, zabalago eta eskola-erakundeak berak beretara bakarrik kasu egin ezin dien eskari hazkorrei erantzuteko gai denaren diseinuan aurrera egin beharko genuke. Desiragarri da beste agente batzuk egotea, hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparru batzuetan gizarteak egiten dituen eskariei sendotasun eta ahultasun ezberdinekin, baina kalitatezko zerbitzuekin erantzun nahiean.

Une hauetan errealitate bat da buru ezberdinek, hala nola guraso-elkarteek, kirol eta kultur elkarteek, langile-sindikatuak, zerbitzu-hornitzaileak, tokiko eta administrazio ezberdinetako taldeak eta kultura, lana, osasun, ... bezalako sailek, hezkuntza-eginkizunetan eskuhartzea. Iharduera hauek gero eta pisu gehiago duten arren eta zeregin horietara dedikatzen den aurrekontua asko gehitu den arren, iharduera asko pizka bat deskoordinaturik dago eta sarri ez da egoten lankidetzarik. Beraz, lehenetsunak definitu beharra dago eta hezkuntzak eskola-eremuan dituen erantzunkizunak mugatu beharra, gero heziketa-helburuekin elkarte-eremu beraren baitan batez ere garatzen diren ekimen ezberdinak koordinatu eta lankide izateko modua abordatzeko.

Desfaboratuenei laguntza emateko orduan noraino heltzen den Hezkuntza Administrazioaren erantzunkizuna eta noraino Ongizate Zerbitzua, edo droga-menpekotasunen aurrezaintzan edo urrituei laguntzeko zerbitzu jakin batzuetan zein den Osasun Zerbitzuen erantzunkizuna eta zeintzuk Hezkuntzarenak, edo aisia erabili eta gozatzeko prestakuntzan Kultura-arloaren eskuharmen-eremua zein den eta zein Hezkuntzarena, lan-munduaren erantzunkizuna zein den hasierako lanbide-heziketan eta hezkuntza-munduarena zein lanbide-birziklapenetan, .... bezalako arazoak, arazo garrantzitsuak dira, ez eremuak mugatzeko bakarrik, iharduerak koordinatzea ahalbideratuko duten programak definitzeko baino.

Azken batean, eskatu beharra dago, alde batetik, errespetatzeko eskola-erakundearen lan propioaren esistentzia eta hau garatzeko behar den pedagogia-ezagutza berezia duten profesionarien presentzia eta, beste alde batetik, etengabe ekin behar da amaiera jarri behar zaiola eskolatzearen monopolioaren gizarte gordailuzaintzat eskola aurkeztu izan den aldiari. Eskola-erakundeak gizarteko hezkuntza-sarea osotasunean ordezkatu behar ez duen arren, hala ere bere gain hartu behar du beste gizarte-agenteen lanean eragina ukan beharko duen paper nagusia eta, era berean, kanpoko eraginak onartu behar ditu. Gizartearen prestakuntza-premiei etorkizunean erantzuteak, hasierako eta etengabeko prestakuntza-azpisistema bien elkarstartze hazkor bat eskatuko du.

Eskolaren eta beste agenteen arteko lankidetzak, gainera, irakasleek eskolatik kanpoko munduarekin eta ekoizpen-munduarekin harreman handiagoa izatea ahalbideratzeko birtualtasuna edukiko luke, gero eta gehiago behar izango den gauza. Irakasleak mundu honi buruz duen ikuspegiarekin kutsaturiko mezu asko ematen die bere ikasleei eta XXI. mendeko ikasleentzat baliozko den eskola-kultura bat eraiki ahal izateko, gizarte-ezagutza handia eduki beharko da eta hori ingurune-eskolaren elkarreragintza handiagoak erraztuko du.

### **3.- LANBIDE-GARAPENAREN PROZESUA.**

Profesionari baten hirugarren ezaugarri bat, aitzatespen eta promozio-ahalbideei begira bere profesionaltasuna garatzeko duen perspektiba da. Alderdi honetan, profesionari batek behar ditu:

- Hasierako prestakuntza osatu eta eguneratuko duen etengabeko prestakuntza.
- Bere irakas-praktikaren ebaluaketa.
- Berriztapen-gaitasuna
- Lanbide-promoziobideak.

#### **3.1. Aktiboko irakaslegoaren prestakuntza.**

Prestakuntza, aktiboko irakaslearen eskubide eta betebeharrak bezala itxuratzen da. Eskubideenez, aldaketetatik eta bere lana ulertzeko modu berrietatik sorturik formulatzen diren eskakizunekin zerikusian jartzen da eta betebeharrakenez, profesionari gisa eskakizun horien neurria egoteko erantzunkizunarekin zerikusian.

Jakintza praktikoari dagokionez, irakasleak bere erantzunkizunak egokiro betetzeko behar duen lanbide-gaitasuna ez da geratzen jakintza teoriko batean. Teoriaren eta praktikaren arteko kontrastaketa bat behar du, teoria bere praktikan gertatzen dena sakonago ulertzeko bide bat izan dadin eta, era berean, praktika horrek teoria esangura propioz jantz dezan.

Aktiboko irakaslearen prestakuntzak hurrengo zer hauek aboratu behar ditu:

- Irakatsi behar dituen ikasketa-planeko edukinen gaurkotze zientifikoa, halako eran non ezagutuko dituen ez jakintzagaiaren ekarpen berriak bakarrik, baizik baita ikasleei irakasteko orduan jakintzagaiak har ditzakeen ikusmolde berriak ere;
- Irakaskuntza-egintza gaitasunez egitea ahalbideratuko dion gaurkotze didaktikoa, kontutan izanik irakatsi behar dituen edukinen eta ikasi behar dituen ikaslegoaren eskakizunak; eta hala arlo konkrituaren ikuspegitik nola prozesuaren globaltasunetik begiratuta irakaskuntza/ikaskuntza-prozesuan eskuhartzen duten faktoreak eta dagozkion jarrerak ulertu eta bereganatzea ahalbideratuko diona:

- Ikasketa-planaren kudeaketan talde-lanean jokatzen ikastea.
- Tutoretza-lanerako, ikasketa-planean integraturiko orientabiderako eta aniztasunaren tratamendurako prestakuntza.

Lanbide-zereginean behar diren aldaketak, banakako kualifikazioa baino harago doaz. Prestakuntza, irakasle denez daukan errolari eta hori egikaritzeko daukan taldeari lotuta egon behar da eta eskola-testuinguru konkretu batean ikasketa-plana garatzeko gaitasuna gehitzea erraztu behar du. Beraz, ikastetxerako egindako edo ikastetxeko proiektuei loturiko prestakuntza-programek, aktiboko irakasleen prestakuntzan eduki behar dute paper nagusia.

### **3.2. Irakas-praktikaren ebaluaketa.**

Irakasle-lanbidea garatzeko oinarrizko mekanismo bat, bere praktika propioaren ebaluaketa da. Autoanalisi-gaitasun honek bere irakas-ekintzaren sendotasunak eta ahultasunak ezagutzea eta ikaslegoaren hezkuntza-beharrizanak eta bere erantzunaren nahikotasuna detektatzea ahalbideratuko dio.

Nagusiki taldean egin behar den ebaluaketa honek, Ikasketa Proiektua hartzen du erreferentziatzat eta helburutzat du Proiektua bera eztabaidan jarri eta hezkuntza-ekintza egokitzen duten erabaki berriak bilatzea eta aipatu Proiektua eta bere ebaluaketa praktikan jartzea.

Irakas-praktikaren ebaluaketa, autoebaluaketa-prozesu bat da eta bere orde ezin da erabili kanpoko ebaluaketarik, nahiz eta lagundu ahal dion. Bere irakas-praktikan planteatzen diren arazoaren erroaren aitzatespena norberak egiteak eta erantzuna bilatu eta emateko gogoak baino ez du izango bere lanbide-praktika aldatzeko behar den besteko birtualtasuna. Ebaluatzaile aditu baten ekintzak lagunduko du autoebaluaketa-prozesuan eta, baita, gidatu ere, baina inoiz ere ez du ordezkatu.

### **3.3. Berriztapen-gaitasuna.**

Hezkuntza-berriztapenak, irakas-praktikan irakaslegoari agertzen zaizkion arazoei erantzuna ematea suposatzen du. Berriztapen-gaitasunak sormen-ihardueraren bidez garatzen den lanbide-gaitasuna dakar egoera errealak interpretatzeko, bere kausak eta baldintzagarriak analizatzeko, soluzio-hautabideak proposatzeko, bideragarritasunagatik eta koherentziagatik proposatutako helburuarekin une jakin batean egokiena dena hautatzeko, praktikan jartzeko eta erdietsitako emaitzak eta hasieran planteatutako arazoari erantzuna emateko nahiko denentz ebaluatzeko.

Berriztapena, prestakuntzarekin eta irakas-praktikarekin hain sakon lotuta dago ezen prozesu berberaren hiru alderdi direla uler daitekeen, nahiz eta kasu bakoitzean eurretari batek lehentasuna izan, lortu nahi den helburu zuzenaren arabera.

Irakas-praktikaren ebaluaketak lanbidea garatzeko prozesuaren abiapuntua aurkitzen du eta honi irtenbidea bila dakioke arazoaren eta bere soluzioen

(prestakuntzaren) ulermena gehituta edo arazoa konponduta, erantzun konkretu bat (berriztapena) praktikan jarri. Ez dago dudarik prestakuntzan lortzen den arazoaren ulermena, osoa ez dela izango jakintza praktiko bilakatu arte eta berriztapen bat praktikan jartzeak arazoa hobeto ulertzen lagunduko duela.

### **3.4. Lanbide-sustapenerako bideak.**

Lanbide-garapenak, irakasle profesionariari ahalbide berriak irekitzen dizkion hedabideak behar ditu. Lanbide-promozioak erraztu behar du irakasle-lanean bertan potentzialtasun berriak aurkitzea (promozio horizontala) edo bestela profesionari esperimentatuak behar dituzten lanpostu ezberdinetara sarbidea ahalbideratzea (promozio zuta).

Ez dira nahasi behar lanbide-garapena errazteko behar diren promozio-bideak eta aipatu garapen horretan maila jakin batzuk lortu dituenaren aitzatespen ofiziala, nahiz eta beti izan desiragarri koerlazio bat egotea aitzatespenaren eta promozio-bide egokien bidez erantzunkizun berrietara sarbidea izatearen artean.

Irakasleen lanbide-garapena aintzatetsi eta bultzatzeko xedeaz lanbide-promozioa definitu eta aplikatzearen arazoa, oraindik konpondu gabe dago eta ahal denik eta azkarren aboratu behar da, dokumentu honetan definitzen saiatu garen irakasle-profesionaltasunaren ereduarekin bat datozen irizpideei jarrai.

## **4.- LANBIDE-KULTURAREN ALDAKETA.**

Lanbide batek, sarri ideia eta baita uste eztabaiaezin eta guztiek onartuetan ere oinarriturik dauden era-mordo bat du talde-ekoizkintzat, berari dagozkion lanei aurre egin eta gatazkak aboratu eta konpontzeko.

Kultura honek, lanak egitea errazten du, guttienezko amankomun batzuk ziurtatu eta bermatzen ditu, ikastetxera datozen profesionari berriei erraz moldatzea ahalbideratzen die eta elkarren artean komunikatzen laguntzen duen oinarritzko berbategi amankomun bat sortzen du,...

Era berean, lanbide-kultura honek norbere errealitatearen ikuspen-eremua tikitzen du, ohikeriazko iharduera-formetara errotan, lanbide-zereginaren beraren analisi sakona egitea oztokatzen, beste profesionari batzuegandik eta taldekide ez direnetatik isolatzen eta jarrera korporatibistetara bultzatzen du erraztasun izugarriaz.

Lanbide-kultura ez da lanbide bat ezaugarritzen duen osagai bat, baina bai, ordea, derrigorrezko ondorio bat eta garatzen ez ezik bizitzen ere lagunduko dion "humusa" bihurtzen da. Ez dago lanbiderik, lanbide-kultura propiorik gabe.

Lanbide baten krisi-uneetan, esaterako irakasle-lanbideak oraintxe bizi duen modukoetan, edo lanbidean aritzeko testuinguruak aldatzen diren uneetan, esaterako ikastetxeetan ematen ari den modukoetan, lanbide-kultura aldatu beharra egoten da.



Oso luzea izango litzateke, eta agian egiten zaila irakasleentzat eurentzat ere, gorago eta aipatu testuinguruetan deskribaturiko moduko iharduera baten eskakizunetara egokitze egin beharko litzatekeen azterketa kritiko baten gai izan beharko liratekeen irakaslearen gaurko lanbide-kulturaren ezaugarrien zerrenda. Kultura-aldaketa hau, lanbide-zereginean egon diren era askotako aldaketen emaitza da eta ez aldaketa-prozesuari hasiera emango dion kausa.

Lanbide-kulturaren aldaketa, irakas-egitekoaren oinarri den gogoetaren aldakuntzaren bidez burutu beharko da, baina iharduera hori, derrigorrezkoa den arren, ez da nahiko izango. Antolamendu, lan eta harreman-testuinguruak ikastetxeetan aldatuta bakarrik emango da irakasleen lanbide-kulturaren aldaketa. Eginkizun honetan "testuek baino garrantzi gehiago testuinguruek" dute. Testuinguruaren aldakuntzan guztiok ditugu geure erantzunkizuna, baina bereziki Administrazioak, ikastetxe pribatuetakoa titularrek, sindikatu eta lanbide-erakundeek, pedadogi berrikuntzako mugimenduek,... Honexetara bakarrik lortu ahal izango da norbanako eta talde-mailan eragina izango duen jokatzeko eta irakas-egitekoa geuganatzeko modu ezberdin bat.

### **C.- ALDAKETEN LEHENTASUNAK ETA ESTRATEGIAK ETA DESIRAGARRIRA HURBILTZEKO BEHARREZKO DIREN IHARDUERA BATZUK**

Aztertu dugu nola ugaritu diren nabariro hezkuntza-sistemari egiten zaizkion eskariak, nola aldatu den funts-funtsetik irakaslearen lanbide-soslaia eta nola planteatzen zaizkion egiteko eta erantzunkizun berriak gaurko hezkuntza-sistemari. Gertakizun hauek, hezkuntza-administrazioek eta gizarte-agente ezberdinek eurenganatu behar dituzte, euren iharduera instituzional edo partikularrak errealitate berrira egokituta.

Hala ere, hezitzaile-talde berezia, hezkuntzaren profesionariak hain zuzen dira, sarri askotan kontraesan garrantzitsuz beteriko aldaketa-faktore hauen ondoren zuzenek bat egiten duten sektorea; garrantzi guttien ez duen kontraesan bat hurrengo hau da, alegia, talde honetan indibidualki eta kolektiboki jartzen dela aldaketa-prozesu hauen dinamizatzaile autonomia pedagogikodun marko teoriko batean izatearen erantzunkizuna, eta horrekin batera testuinguru ez hain aldekoan bere profesionaltasuna garatzera behartzen direla, lanbideak jasaten dituen baldintzen eraginez: hauek hain zuzen: sozialki balio gabetu eta desprestigiatutako lanbidea, eskakizun berrietatik urruti dagoen kultura bat duena, promozio-bide urriak dituena, guttiegi ordaindua, ...; guztiak, karga desmotibatzaile astun bat duten alderdiak, alajaina!

Eskuduntza-marko berriak, eskuduntza/erantzunkizun mordo handi bat jartzen du profesionariaren gan hezkuntza-erakundearen osagai denez eta horrekin batera orain arte egin izan dituenetatik nabariro ezberdinak diren gaitasunak eskatzen dizkio.

Profesionari berri hau, beharrezko den lanbide-kultura berri hori, ez da Dekretuz lortzen. Ez da nahiko, ikasketa-plan ireki eta malgu baten bigarren eta hirugarren zehaztapen-mailen erantzule era kolegiatuan egitea. Ez da aski, legeko testuek edo

kasurako bibliografiak jokatzeko era kolegiatu eta koherentzia eta kalitatearekin konprometatuak agindu edo gomendatzea; horrez gain beharrezko da zuzen inplikaturik daudenek, hau da irakasleek, guzti hori ezagutu, ulertu, barneratu eta norbereganatzea.

Gaurko egoera definitzen duten elementuetariko batzuk, hauek dira: mota ezberdinetako eta kausa ezberdinek motibaturiko indibidualismo zorrotza, indarrean dauden hasierako eta aktiboko prestakuntza-eredu eta baldintzak, hautatzeko eta lan-postura adskribatzeko erak, ongi egindako lana kontutan ez hartzea, irizpide bakartzat antzinasuna jotzea, kalitatearen kontrol demokratikorik eza, gogoeta egin, aztertu eta elkarrekin erabakitzeko denbora errealik ez ukaitea,....

Egin beharreko aldaketa, oso sakona da, irakas-portaeraren, bere lan-baldintzen, bere jarreraren eta motibazioen oinarritzko alderdiei ukitzen die eta ezin da itxaron aldaketa hauek epe laburrean emango direnik, ikastetxei autonomia formalki delegatu zaiela-eta. Hori ahalbideratuko duten neurri osagarri eta zehatzak martxan jartzea, derrigorrezko lana da.

Ildo honetan ulertzen dugu, desiragarria hurreratzeko beharrezko diren aldaketa horiek ahalbideratuko dituzten jokabide zehatzen bidez lehentasunak eta estrategiak ezarri behar hori. Lehentasuna duten hiru jokabide-eremu detektatzen ditugu:

- 1) Gaitasun/prestakuntzarena, lanbide-errol berriari erantzuna emateko.
- 2) Lan-baldintzena, profesionaltasuna garatzeko marko egoki bat sortzeko.

Hezkuntza-kalitatearen kontrol demokratikoarena, profesionaltasun-profesionalizazioaren eraginkortasunaren adierazleak definituta.

## **1) GAITASUN-PRESTAKUNTZA ARLOA.**

Hezkuntza-sisteman azken urteetan eman diren elkarren segidako erreformek eta era berean hezkuntza-kalitatea hobetzeko dagoen gizarte-eskari azken sortu berri eta hazkorrak eta profesionarien etengabeko erreibindikazioek nabariro bultzatu dute aktiboko profesionarien prestakuntza-planen garapena.

Irakaslegoaren prestakuntza eta halaber irakaslego horren irakasleen prestakuntza, zerbitzua egin nahi dioten hezkuntza-sistemarekin koherente diren ereduaren arabera garatu behar dira. Curriculum-politikan harturiko erabakiek xedatzen dituzte irakaslearen oinarritzko gaitasunak. Honela, prestakuntza ikasketa-planaren garapenarekin zerikusian jartzen dituen prestakuntza-prozesuak, curriculum-marko malgu batek orientatu behar ditu, baina ikasketa-plana ulertuta irakasle-taldeak kontrastatu eta ideien eta etengabe aldatzen ari diren praktiken arteko dialektikan ebaluatu behar dituen lan-hipotesi berriak sortzen dituen praktikari buruzko etengabeko gogoeta-prozesu bat bezala.

Prestakuntza-esperientziak ildo honetatik diseinatu, aplikatu eta ebaluatzea, gaur lehentasunezko eginkizuntzat agertzen da. Lehentasuna du orobat gaur arazoa den ikerketaren emaitzak eskolako praktikara eraldatze hori gairak, baina halako eran

non ikerketa hori baliagarri izango den eta bere ekarpenek irakas-praktika aldatzen lagunduko duten.

Irakaslegoaren prestakuntzarako ebaluaketa-erreferentzia ere, norbere lanbidea garatzeko gaitasun honexek izan behar du, baina ulertuta ikastetxe baten eta irakaslegoa lotuta sentitzen den proiektu konkretu baten markoan beronek burutzen dituen iharduera errealetan oinarrituta egongo den ikerketaren subjektu aktibotzat irakaslea edukiko duten estrategien bidez norbere irakas-praktika esanguratsuki eraldatzeko gaitasun bezala.

Gaurregun egiten den ebaluaketa-motaren aurrean, hau da, harturiko edukinen baliagarritasuna edo egokitasuna, euren aplikagarritasuna, erabilitako metodoaren egokitzapena edo planteatutako tematikak beregan sortu duen interesaren balioespenari buruz gehienetan egiten den ebaluaketa horretaz irakasleak sentitzen duen poztasun-mailan ardatza duen horren aurrean, aurrera egin behar da prestakuntzak irakaslearen gan eta bere praktiketan, ikaslegoaren gan eta bere lorpenetan, ikastetxean eta bertako antolamenduaren hobekuntzan eta bertako proiektuen garapenean duen eraginari buruzko informazioa emango diguten ebaluaketa-tekniketan.

Ikusmolde ebaluatzaile hau, lan-lekuko prestakuntza-ereduetarako egokientzat agertzen da. Etengabeko prestakuntzak, ikastetxea bera eta bertan garatzen diren proiektu ezberdinen bidez kanalizatzen dituen bere alderdi guztiak erreferentziazat dituen ikuspegi eratzailer eta osotzaile bat hartzen du eredu hauetan. Testuinguru honetatik kanpo sortzen diren prozesuek, irakaslegoaren kultura gehi dezaketen arren, irakas-praktika hobetzeko duten eraginkortasuna, guztiz zalantzan dago.

Iharduera-lerro honetara hurbiltzeko saio batean 1992-93. ikasturtean eta 3 urteko perspektibarekin, gure Autonomi Elkarteke Hezkuntza Administrazioak Prestakuntzarako Plan Trinko (PPT) bat jarri zuen martxan Haur eta Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe praktikan guztietara zuzenduta. Plan honek, egokitzen jotzen dugun aktiboko prestakuntza-eredu bati erantzuten dio, nahiz eta bere aplikazioak begibistan utzi duen gauza batzuk berformulatu beharra.

Labur-labur azalduko ditugu bere helburuak eta diseinua eta orobat praktikan jartzeak begibistan utzi dituen mugapen batzuk ere, ildo honetatik lan egiteko komenigarritasuna defendatzeko xedeaz, agian pazientzia gehiagorekin eta kontutan izanda iharduera trinko hauek bide eman behar dietela etengabeko prestakuntza-prozesu autonomoei.

PPTk erantzuten dion helburua, honako hau da: "Irakaslegoaren lanbide-trebakuntza gehitzea Erreformako planteamendu berrien oinarrizko alderdian, ikastetxeek ikasketa-proiektuak baldintza egokietan lantzea ahalbideratzeko". Prestakuntza-plan honen funtsezko ezaugarriak, curriculum-planteamendu berriekin duen lotura eta ikastetxe bakoitzeko dinamika berezian duen lokarria dira eta, beraz, talde bakoitzaren ibilbide eta esperientziara moldatzen den izaera. Moduluetan egituraturik dago eta Pedagogi Aholkutegetako (PAT) kanpoko aholkariak eta bere ihardunaldia ekinkizun honetan dedikatzen duen irakasle koordinatzaile baten bidez ikastetxeetako barrukoek laguntzen dute bera garatzen. Plan honek, irakasle-taldeko kide guztien eskuharmena eskatzen du eta ordutegi eta antolamendu-aldaketak

ikastetxean egitea ahalbideratzen, elkarlana errazteko. Azkenez, barne eta kanpo ebaluaketa sistematikoa hartzen du.

Aurrikusitako prozesu hau oraindik amaitu gabe dagoela eta, beraz, behin betiko ebaluaketarik egin gabe, emaitza partzialek hurrengo zer hauek ematen dituzte elementu esanguratsuentzat:

a.- Irakasleek ebaluaketa positibo bat egin diote; laburbildu daiteke esanez ez zeuden tokietan talde-laneko dinamikak eta pedagogi-alderdiei buruzko talde-gogoeta sortu dituela eta lehendik zeudenetan, zalutasun eta eraginkortasun handiagoa eman eta bizkortu eta, era berean, hezkuntza-erreformako planteamendu berrien ezagupen orokor bat ahalbideratu.

b.- PATetako aholkularien egitekoen birmoldaketa positiboa suposatu du, ikastetxeari unitate denez erantzun globalak emateko eta honek behartu ditu euren berezilari-izaera gaititu eta euren jokabideak koordinatzera. Aholkulari guztiek ez diote erantzun eskatzen zitzaizen soslaiari eta hauxe izan da prozesuen kalitate ezberdinaren faktore erabakitzaile bat.

c.- Agerian jarri ditu, ikastetxearen funtzionamendu zuzenerako garrantzi handia duten beste eginkizun batzuk (maila eta ziklo-koordinaketa, gelarako materialen prestaketa, tutoretzak, ...) baztertu gabe eginkizun berriei kasu egiteko denbora-faltarekin zerikusituta duten mugapen batzuk eta, beraz, zuzendu beharko dira.

d.- Administrazioak hasieran erakutsi zuen jarrera, talde-laneko emaitzak aurkezteko eperik ez jartzea alegia, bigarren urtean aldatu egin zuen ikastetxearen ikasketaproiektuaren funtsezko ezaugarriekin lehenengo dokumentu bat ikasturtea amaitzean aurkezteko eskakizunerantza. Gertaera honek, beste eskari batzuekin batera, hala nola Antolamendu eta Funtzionamendu Araudien lanketa, lanpetasun eta erritmo bortxatuen zentzuzkoa sortu du ikastetxeetan eta honek, hainbat kasutan, talde-gogoeta baztertu eta dokumentuen lanketa hutseko lanari eman dio lehentasuna. Gainera, emaitzak aurkeztu beharrak, jokabideak bateratu eta neurri batean hutsaldu egin du ikastetxe bakoitzeko ezaugarri eta eskarietara moldatutako prestakuntzaren hasierako ideia hura.

e.- Anitzurteko prestakuntza-plan honen garapenarekin batera, plantilei ukitu eta irakaslearen etorkizuneko itzarobideetan eragina ukan duten prozesu ezberdinak burutu dira (egokitzapen-prozesuak, lekualdatze-lehiaketak, eskola-maparen indefinizioa, ...) eta honek ondorioak izan ditu irakasle-taldeen konpromezu eta inplikazio-mailan.

Ondorio gisa esan genezake Haur eta Oinarrizko ikastetxeetan hasitako prestakuntzalerro honek eredu egoki bati oinarrian erantzuten diola eta horixe diote irakasleek eurek ere, baina, era berean, agerian jartzen ditu PROPOSAMEN batzuk planteatzera garamazkin hutsune batzuk ere:

- Zaindu behar dira ezartzen diren erritmoak, kontutan izanik sakontasun hain handiko aldaketak bilatzen dituzten prozesuek bizi ohi duten astitasuna.
- Hobeto egokitu behar dira beharrezko diren laguntzak eta laguntza-material desberdinak hartu.

- Politika koherenteak ezarri behar dira giza-baliabideen antolamenduan: taldeen egonkortasuna, zalantzak gainditzea, talde-lanaren pizketa eta aintzatespena, ..., derrigorrezko gogoeta-giroa erraztu eta prestakuntza-ahaleginak errentagarri egiteko.
- Erakundearen prestakuntza-planak ebaluatu behar dira, bere emaitzek Administrazioari eta hezkuntza-elkarteei bide eman diezaien jakiteko helburuak noraino bete diren eta horiek hobetzeko egin behar diren aldaketak zeintzuk diren.
- Ikastetxeetan eurretan buruturiko prestakuntzaren ereduak era honetako birplanteaketa bat egotea eskatzen du berau gauzatu beharreko baldintzetan, hau da: prestakuntza hori irakaslearen eginkizun-multzoan sartuta geratzea, talde honen eskubidea eta betebeharra dela aintzatestearekin koherentzian.
- Zuzendaritza-taldeak gehiago inplikatu behar dira ikastetxeetan egiten diren berriztapen eta prestakuntza-prozesuetan eta horren arabera jokatu behar da zuzendaritzakoen prestakuntza-planen diseinuan.

## **2) LAN-BALDINTZEN MARKOAN.**

Hemen aurkeztu dugun prestakuntza-esperientzia konkretu honetan, prestakuntza-planaren beraren kanpoko egitura-fenomenoen eragin erreala saihestu ezin den legez, irakaslearen lan-baldintzek funtsezko eragina dute irakas-profesionaltasunari buruzko gogoeta-multzo honetan.

Gorago aipatu ditugu moldatu behar den errealitatean irakasleak bizi dituen kontraesanetariko batzuk eta asko gehiago aipa daitezke:

- Sistemaren Erreforma irakaslearen gan oinarritzen da, baina guttietsi eta desprestigiaturik dagoen lanbidea da.
- Ikastetxeko proiektuetan inplikatze eskatzen zaio, baina kopuru handi batek ez du finkotasunik bere lanpostuan.
- Gaitasun berriak eskatzen zaizkio eta erantzunkizun berriak ematen, baina ekonomia-abagune eskasa aitzakiatzat jarrita ez zaio ordaintzen horien arabera eta funtzionarien kasuan ez da onartzen Administrazioako beste eremu batzuetan antzeko maila duten profesionaliekin parekatzerik, ez hezkuntzako profesionalen barruan ikastetxe pribatuetako eta itunpeko ikastetxeetako irakasleoa parekatzerik ere.
- Bere praktika propioari buruz gogoeta egiten duen irakasle ikerlearen eredu definitzen da, baina irakasle-kupoak eta ordutegia irakasletza zuzeneko ordutegia erreferentzia nagusitzat harturik eta talde-koordinaketari, antolamenduari, prestakuntzari,... denbora berezirik eman gabe ezartzen dira.

- Pedagogia-autonomiaren ikuspegitik eta ikastetxe bakoitzeko dinamika propioan sartuta ikasketa-plana garatzeko proiektuak egitera gonbidatzen da, baina emanaldi-epeak ezartzen zaizkio eta emaitzak eskatu eta berreskatuta estutzen da.
- Ikastetxearen autonomia aldarrikatzen da, baina bere etorkizuna, ezagutzen ez duten eta iritzirik ere eskatu ez dieten eskola-mapa baten mende dago.
- Erreformaren aldeko sua eta garra erakusteko eskatzen zaio, baina irakasle-kopuru handi batek ez daki hori non erakutsi beharko duen, lehen hezkuntzan ala derrigorrezko bigarreanean.
- Ikastetxeetara esleituriko aurrekontuak guttitzen diren unean ematen zaie autonomia ekonomia eta finantza-kudeaketan.
- Izugarritzko garrantzia ematen zaie bigarren hezkuntzako orientazio eta tutoretzari, baina horietarako ematen den denbora ez dator bat eman nahi zaion garrantziarekin.
- Irakaslegoa ebaluatuko dela iragartzen da, baina ez da zehazten ez tresnarik, irizpiderik, agenterik, ez xederik.
- Lan-hitzarmenak sinatzen dira Hezkuntza Sailarekin, baina honek ez ditu betetzen eta kitto.
- Irakaslegoaren etengabeko prestakuntzarako planari buruzko aurrekontu-hitzarmenak egiten dira, baina hauek ere ez dira betetzen, eta zer?
- ...

Ez da zaila zerrendarekin jarraitzen, baina geure asmoa ere ez da agortzea; ez dugu besterik nahi irakasleen gan pisu astuna duten eta esaten ari garen bidetik profesionaltasunaren garapena modu garrantzitsuan eragozten duten elementu batzuk agerian jarri baino.

Irakasleen artean ere defentsa-mekanismo jakin batzuek funtzionatzen dute, kasu batzuetan hezkuntza-sistemaren burokratizazioak bere baitan daraman ohikeriak eraginda eta beste batzuetan, lortu nahi den profesionaltasun hori inola ere errazten ez duen kultura bat itxuratzen duten erosotasun eta motibaziorik ezak bultzatuta.

Zentzu honetan urgentzia handia du, irakaslegoaren sektore handi batean hain sustraiturik dagoen lan indibidualizatu eta indibidualistaren kontzepzio hori gainditzeak, eta ez xedapen ofizialetatik jario daitezkeen orientazio edo aginduek diotelako bakarrik, beste arrazoi askogatik baino, eta hauen artean, horixe delako lanbide-eremuan segurantzaren pertsonalik eza gainditzeko, beste bide batzuk egin ahal izateko alde zuzeneko urratsa emateko alegia, balio duen estrategia bakarra.

Era berean garrantzia du sormen-garapena eragozten duen kontzepzio automurrizgarria ezabatzeak ere.

Esku-harmen ahalgarri eta desiragarri batzuk aipatuko ditugu PROPOSAMEN gisa:

a.- Jakin behar da talde-lana ohitura bat dela neurri handi batean eta, beraz, eskura daitekeen zerbait. Honek esan gura du hau talde-lanaren teknika, baldintza eta inplikazioen inguruko etengabeko prestakuntzaren eskaintzan sartu behar dela.

b.- Arlo honetako esperientziak elkartrukatzea erraztu behar da. Talde-lana errazteko erari buruz bide luze bat egin eta esperientzia interesgarri bat metatu duten klaustro eta irakasle-talde mordo bat dago.

c.- Irakaslegoaren ordutegian denbora bat ziurtatzea talde-lan hau egin ahal izateko. Kexa, orokor bihurtu da denbora guttiegi dagoelako. OHOn erabateko dedikaziorako ordua eginkizun hauetarako erabili ohi da neurri handi batean, baina ez da aski eta hori errazten duten formulak bilatu beharko lirateke. I.E.etan talde-lana, Sailean edo Mintegian baino ez dago onartuta eta hor ere guztiz ez. Gainerako eremuetan, talde-lanaren defizit handi bat dago. I.E. etako irakasleoa inplikaturako duen eztabaida baten ostean erabakiak hartu beharra dago, ikastetxeko egonaldiari eta bere ordu-dedikazioari buruzko lan-baldintzak argi eta garbi ezartzeko.

d.- Derrigorra da Administrazioak konpromezu argi bat hartzea irakaslegoaren lanean kultura-aldaketa bat bultzatzeko. Zentzu honetan azpimarratu behar da irakaslegoari ez zaiola tirandurarik sortu behar premiarik gabe, gero praktikan konpromezu konkretuetan gauzatuko ez diren formulazioak dokumentuetan eginda, orientazioaren eta tutoretzaren kasuak bezala, ikasketa-planetan garrantzi izugarria eman arren, gero ikastorduetan ez baitzaie abordatzeko denbora nahikorik ematen, nahiz eta, ziuraski, bide hauek baliagarritasun handia izan irakaslegoaren talde-lana I.E. etako klaustro askotan bultzatzeko.

e.- Derrigorra da irakaslegoaren ordezkari diren erakunde sindikalek irakasleak ikastetxean iraun behar duen denbora eta eduki behar dituen baldintzei buruzko eztabaidarekin bat egitea, defentsa eta korporazio-planteamenduetatik ihes egin eta langileen interesak eta kalitateko irakaskuntzaren eskakizunak ados jartzeko kapaz den eztabaida-marko bat lan-hitzarmenetan planteatuta.

### **3) HEZKUNTZA-KALITATEAREN KONTROL DEMOKRATIKOA.**

Ebaluaketak, eremu dimentsioan hartzen du erreforman. Honela, ikaslegoari dagokionez, heziketa-zeregin nagusiaz gain, ziklo arteko eta etapa arteko igarotzeari buruzko erabakiekin ere zerikusi du. Ikastetxeak ebaluatuak izango dira; autoebaluaketarako baliabideak eta prozedurak emateko konpromezua dago eta kanpotik ere ebaluatuak izango dira. Sistemari berari ere ebaluaketa egingo zaio; ebaluaketa honen egitekoa gaurko deserdirapen-markoan bere koherentzia bermatzea izango da.

Gure Hezkuntza Sistemari Ikastetxeen ebaluaketa errealitate izaten hasirik dago. Dugun esperientzia laburrak, ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua

hobetzeko neurriak asmatzea ahalbideratuko duen diagnostiko bat egitea du helburutzat, nagusiki prestakuntza-xede bat beraz.

Hala ere, eta bere baliotasun eta eraginkortasunari buruzko gogoeta eta analisisa aurretik egin eta justifikatu gabe, orain ikastetxeak ebaluatzeke xede ezberdin bat proposatzen da. Ikastetxeen ebaluaketaren emaitzak erabiltzailearentzat informazio-elementu izatea nahi da, ikastetxea libreki hautatzeko eskubidea errazteko, hau da, ikastetxeak sailkatzeke balioke duen eta funtsean xede izango den asmoarekin.

Planteamendu hau ikastetxeen autonomiarekin lotzen da hezkuntza-sistema publikoko ikastetxeen arteko eta honen eta sektore publikoko arteko lehiakidetasun libreko, merkatu libreko marko batean eta badirudi gizarte-pluralismoa eta hautapen-eskubidea aitzatesten dituen premia demokratikoaren ideian oinarritzen dela. Hala ere, ikastetxeen desberdintasuna errealitate bezala aintzatestea ezin da mugatu standard orokor eta kuantitatiboan arabera sailkatzea, denek onarturiko kalitate-irizpideei erreferentziarik egin gabe eta hautapen-ahalmen tikiagoa duten haien aukeraberberdintasunerako eskubidea eta hezkuntza-sistemaren desberdintasunen egiteko konpentsatzailea ahanzita.

Eskola eraginkorragoa izateko egiten den gizarte-eskariak bere oinarria, irakaskuntza bezalako zerbitzu publiko baten kalitatea kontrolatzeko gizarteak duen zilegizko eskubidean du.

Hezkuntzaren kalitatea demokratikoki kontrolatzeko premia, gero eta gehiago eskatzen du hala eskola-kontseiluen bidez eta hezkuntza-proiektuaren erreferentziarekin ebaluaketa honen erantzunkizuna duen hezkuntza-elkarteak nola aipatu zerbitzuko profesionarien euren sektore garrantzitsuek. Honela, irakasleen artean, gero eta gehiago dira orain ematen den tratamendu berdinzalearen baliotasuna zalantzan jartzen duten ahotsak, ongi egindako lana ez aintzatestea sozialki zuzengabetzat jotzen dutelako eta halaber profesionaririk onenen artean denborarekin sortzen duen karga desmotibatzaileagatik

Hala ere, onarturik hala ikastetxeak, erakunde direnez, nola irakasle bakoitza, bertako agente aktibo denez, ebaluatzeke premia dagoela, gero gertatzen da ez dugula inolako ebaluaketa-kulturarik eta hasieratik bertatik jartzen dizkiogula erresistentzia; honek agerian jartzen du ebaluaketa-prozesuak garapenean zehaztasun handia eta diseinu eta ezarpen-prozesu osoan kontzentzu-maila handiak eskatzen dituen zerbait konplexua dela.

Prestakuntza-ereduei buruz hitz egitean adierazten genuen bezala, ebaluaketaren eremuan ere aipatu behar dugu dauden ebaluaketa-eredu ezberdinen artean, garatu nahi diren balio eta irakaskuntza-motarekin kontsekuente diren haien aldeko aukera egin behar dela. Ebaluaketa-sistema zenbat eta gehiago egokitu hezkuntza-helburuetara eta zerbitzua eman nahi dion sistema eusten duen irakaskuntzaren kontzepziara, hainbat eta arrakasta handiagoa ukanen du. Horregatik, nahi den ikastetxe-eredua eta irakasle-eredua ondo zehaztuta eta kontzentzuatuta egon behar da.

Ebaluaketa-ereduek, gainera, bere baliagarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko behar diren baldintzak biltzen dituen planteamendu argi bati erantzun behar diote. Zentzu honetan, egokiagoak dirudite ebaluatu nahi ditugun testuinguru bereziak



kontutan hartzen dituzten eta, gainera, ikastetxe bakoitzeko errealitatea ere kontutan izaten duten ereduak. Bi ohar hauek aplikazio orokortuko eredu uniformeak baliogabetzen dituzte.

Irakaslegoaren inplikazioak eta ebaluaketa-prozesuetan eurretan duten erantzunkidetasunak, emaitza baliagarriak sortu eta ebaluaketari errentagarritasuna emateko gai diren zilegitasun-maila handiak ekartzen dituzte. Beraz ezinbestekoa da irakaslegoak aipatu prozesuotan eskuhartzea eta horrek eskatzen du konfidantza eta ebaluaketa-programaren ulerkuntza-giro bat eta ahal denik eta gardentasunik handiena bermatuko duen prozesu bat sortzea.

Ikastetxe baten antolamendu eta funtzionamendu zuzenaren erantzunkizun-zati handi bat bertako irakaslegoak oro har eta euretariko bakoitzak zehazki duten arren, ezin da ahantzi ikastetxe publikoetan eta subsidiarioki itunpeko ikastetxeetan Hezkuntza Administrazioarena dela azken erantzunkizuna. Beraz, funtsezkoa da ikastetxeen ebaluaketan eta irakaslegoarenean, erakunde-konpromezua eta hala ebaluaketa garatzeko nola berak nabariro eskatzen dituen premiak asetzeko behar den beste baliabide inbertitzea.

## **ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Beste faseak behin gaindituta, gure hezkuntza-sistemaren arduraren nagusia, kalitatearen herronka da. Hala ere, hezkuntzako kalitatearen kontzeptuari berari buruzko indefinizio-egoera garrantzitsu batean mugitzen gara. Aitamek zer ulertzen dute kalitatez? Zer irakasle jaun/andreek? Zeintzuk dira Administrazioak ikastetxe eta irakaslegoaren ebaluaketa egiteko aplikatzea aurriztatu dituen kalitateari buruzko irizpideak?

Ukituriko sektore guztien artean arazo hau argitzeak presa handia du, nahi den ikastetxe-mota eta ondorioz behar den irakaslegoaren ezaugarriak definitzeko jarraibideak ekarriko dituzten kalitateari buruzko irizpideak modu kontzentratuan zehaztea den bezala. Elementu horiek guztiak dira ezinbestekoak ikastetxe eta irakasleen ebaluaketaren gaia planteatzean. Alderdi hauei buruzko gogoeta zabal eta sakon baten premia dago.

Administrazioak, gurasoek eta irakaslegoak, herronka garrantzitsua eta laster burutu beharreko daukate.

- LOGSEn adierazitako ebaluaketa-kontzeptuarekin koherentzian, ikastetxe eta irakaslegoaren ebaluaketak batez ere prestakuntza-izaera eduki behar du, prozesuei erantzun behar die lehenengo eta behin, ikastetxeen eta bertako profesionarien antolamenduan eragina duten elementu guztiak izan behar ditu kontutan eta kalitatearen hobekuntza eduki behar du helburu nagusitzat.
- Kanpoko ebaluaketa eta ikastetxeen euren eta irakasle jaun/andreen autoebaluaketa, osagarritzat jo behar dira, baina bestalde, beharrezkoak dira bata eta bestea. Kontutan izanik gure hezkuntza-sisteman urria dela ikastetxeen ebaluaketan dugun esperientzia praktikoa eta irakaslegoari dagokionez, ostera, esperientzia bat ere ez

dagoela, derrigorra da kultura ebaluatzaile bat inplikatu guztien artean hedatu eta potentziaztea ahalbideratuko duten programa esperimentalak garatzea, ebaluaketa-tresna baliagarri eta kontzentzuatuak landu eta araztea, ikastetxeetako errealitate ezberdinekin bat datozen ebaluaketa-estrategiak garatzea, programa horiek garatzeko behar diren baliabideak eta bitartekoak definitzea, irakaslegoak, gurasoek eta Administrazioak berak konpromezu-eremuak ezartzea ebaluaketatik eratorriko eskariei erantzuna emateko eta zehazki prestakuntza-helburuaz gain, beraren beste helburu ahalgarri batzuk ere modu kontzentzuatuan ezartzea ikastetxe eta irakasleen ebaluaketa-prozesuetan.

- Ikastetxe eta irakasleen ebaluaketaren helburuak argitzea kasu guztietan da funtsezko gauza, hauek nabariro baldintzatzen dutelako beraren arrakasta. Irakaslegoaren lan edo lanbide-egoerako alderdietako batean edo bestean eragin zuzena ukaiteko orduan, zeharo ezberdina da ebaluaketa irakaslegoaren prestakuntza-beharrizanak detektatzera edo bere lanbide-gaitasuna baloratzera begira egitea.
- Helburuez gain, prozedurak, irizpideak eta ebaluaketa-prozesuan kontutan izango diren baldintzak ere ezagutu, jaso eta, beraz, irakaslegoarekin kontzentzuatu behar dira. Baina ez LOGSEn garaturiko ebaluaketa-kontzepzioarekin koherentzia ukaiteagatik bakarrik, bere inplikazioa lortzeko eta erdietsitako emaitzei zilegitasuna emateko bidea delako baino.
- Hobekuntzara bideraturiko ebaluaketa, aplikatzen zaien egoeretariko bakoitzari testuinguratu behar zaio. Honek ebaluaketa-tresna bereziak eskatzen ditu kasu bakoitzerako, edo izaera malgukoak baldin eredu standartuak erabiltzen badira.
- Kultura ebaluatzailek ez izateak, hala ikastetxeei nola Administrazioari berari ukitzen die. Zentzu honetan interesgarri da azpimarratzea lehentasuna, ebaluaketaren ardura duten teknikoek gaitasun egokia bermatzen duten prestakuntza-programak ezartzeak duela. Irakaslegoaren inplikazioa ebaluaketaren emaitzak zilegitzeko baldintza bat baldin bada, lanbide-gaitasunak, prozesuen garapenean objetibotasuna gordetzeak, demokratikoki itundutako ebaluaketaren baldintzak ebaluatzaileek eta Administrazioak zorrozki betetzeak, zilegitasuna eta sinesgarritasuna emango lizkie erdietsitako emaitzei. Eta guzti honek, gomendaturiko aldaketak hobeto txertatzea ahalbideratuko luke antzeko maila duten profesionariekin parekatzerik, ez hezkuntzako profesionarien barruan ikastetxe pribatuetako eta itunpeko ikastetxeetako irakaslegoa parekatzerik ere. Bere praktika propioari buruz gogoeta egiten duen irakasle ikerlearen eredia definitzen da, baina irakaslego-kupoak eta ordutegia irakasletza zuzeneko ordutegia erreferentzia nagusitzat harturik eta talde-koordinaketari